



Goierritarra

169. zenbakia

1999-11-12

Azoka eta
gazta
txapelketa
Zegaman

San Martin
festak Ataun
eta Araman

Errezil sagar
lehiaketa
Gabirian

Odolki
lehiaketa
Beasainen



San Martin festak

JOXE TELLERIA, S. M. Aseguruak
Korreduria

ZURE BIZITZA ETA ONDASUNAK
ONDO ASEGURATU NAHI BADITUZU, BADA KIZU NORA JO

943 88 26 43 - 943 88 71 55 - Faxe: 943 88 71 55

Erauskin Plaza, 2

BEASAIN

GOIERRIKO ODOLKIGILEAK

Arg.: Xabier Mujika



OIANGUREN HARATEGIA



- ✓ Odolki eta mondejuak
- ✓ Txorizo eta tripakiak
- ✓ Baserriko haragia

Gipuzkoa, 15 ☎ 943 88 01 42 **ORDIZIA**

PELLO HARATEGIA

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**

*Otordu ona egiteko
okel eta odolki onak ezinbesteko*

Mariaratz, 2 ☎ 943 88 80 11 **BEASAIN**



OIARBIDE HARATEGIA

Odolkiak eta bertako haragia

Elosegi, 52
Elosegi, 15

☎ 943 88 17 17
☎ 943 16 05 16

LAZKAO

Oiano Harategia

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**



Odolki eta bertako
haragitan
berezitasuna

Andra Mari, 3 ☎ 943 88 07 78 **BEASAIN**

IÑAKI ZUBELDIA



KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**

Bertako haragiak,
odolki, lukainka,
saltxitxa eta aurrez
prestatutako
janariak

K. Nagusia, 14 ☎ 943 88 27 47 **BEASAIN**

J. MUJIKA Harategia



Nafarroa Etorb. 31 ☎ 943 88 04 88
BEASAIN

Nagusia, 16 ☎ 943 88 18 32
Gipuzkoa, z/g ☎ 943 88 08 78
Etxea ☎ 943 16 06 02
ORDIZIA

IÑAKI KANPOS AUTOZERBITZUA

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**

- ✗ Bertako haragia
- ✗ Odolki, txorizo eta tripaki bereziak



Zumalakarregi, 4 ☎ 943 88 28 27 **ORMAIZTEGI**

INAZIO MUJIKA HARATEGIA



- Odolki eta mondejuak
- Txorizo eta tripakiak
- Baserriko haragia

Iazko Ordiziako odolki txapelketako irabazlea, aurtengoan bigarrena

Urdaneta, 8 ☎ 943 88 12 45 **ORDIZIA**

Non zer

6 Eskutitzak

7 TXANDAKA: Iñaki Murua

9 KATE MOTZEAN: Jon Aizpurua

10-11: Ataun San Martingo festak

12-13: Zegamako San Martin azoka

14: Gabiriako IV. errezil sagar lehiaketa

15-23 KRONIKAK

ORDIZIA 15: Ardoaren VII. astea

ARAMA 16: Sanmartinak

LAZKAO 17: Babes ofizialeko etxebizitzak

LEGORRETA 18: Ugarokoak Aragoira

IDIAZABAL 18: Etxegarate bikoizteko lanak

ATAUN 19: Sanmartinak

ZEGAMA 19: I. pilota txapelketa

ZALDIBIA 20: kultur ekintzak

BEASAIN 21: Gipuzkoako ezpatadantzak

SEGURA 22: Nikaraguan ezinduekin

ORMAIZTEGI 23: Mendi astea

KULTURA: Mendeburua kantuz kantaldia Ordizian

26-27: AGENDA

28 DEBALDEKO IRAGARKIAK

29 ZAHARRAK BERRI: Joxe Mujika aramarra

30 FOTO ZAHARRA: Zegamarrak, 1969an



XV. Odolki lehiaketa Beasainen, azaroaren 13an

Beasaingo Udazken kultureko ekitaldiek aurrera darraite oraindik ere, eta honen barruan kokatu behar dugu bihar, azaroak 13, Beasaingo Odolkia- ren Kofradiak antolatuta jokatu den XV. Odolki Lehiaketa. Jatetxeetako pertsona ezagunek eta Beasaingo Odolki kofradiaren bazkideek osatuko dute epaimahaia. Dastaketaren zuzendaritza lanak berriz, Karlos Argiñanok egingo ditu.

Goierrri, Tolosalde eta Urola garaiko harakin guztiek izango dute parte hartzeko aukera. Partehartzaile bakoitzak 10 odolki aurkeztu beharko ditu.

Sari bakarra banatuko da: 25.000 pezeta eta zeramikazko platera. Irabazleak, otsailaren 5ean, Loinazko San Martin egunean egiten den Kofradiaren urteroko bazkarirako odolkiak prestatu beharko ditu. Iazko irabazlea, Beasain-

go Juanita Urretabizkaia izan zen. Irabazlea izango da urtebetean, odolkiaren erre edo erregina.

Odolkiak lehiaketara aurkezteaz gain, herritarrek odolkiak dastatzeko aukera ere izango dute. Antolatzaileek odolki-pintxoak eta edaria saltzen jarriko baitituzte. Egurdiko 12etan eman- go zaio hasiera Odolki lehiaketari.

Azoka berezia

Egun honetan protagonista odolkia izaten bada ere izango da San Martin plaza bestelakorik, bertako produktuekin azoka berezia egingo baita. Euskal Herriko hainbat produktu erosi ahal izango dira beraz, goizeko 10etatik aurrera egongo diren postuetan. Ohizko produktuez gain, Beasaingo 'Martintxoak' pasteltxoak ere salgai izango dira.

Nekane Altuna

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 94388 96 12 Faxa: 94388 27 19

Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Erredakzio Batzordea: Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz. Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Elordi Garzia, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Agurtzane Bikuña, Iñaki Ugalde, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxaga, Aitziber Murua, Iñaki Murua.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.800 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako Kultura Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria





Euskal Herrian Euskaraz-en 20. urteurre- neko ospakizunak Ordizian, azaroaren 24tik 28ra

Euskal Herrian Euskaraz elkartearen 20. urteurrena ospatzeko hainbat ekimen antolatu da, euskararen aldeko mezua indar handiagoarekin zabaltzeko nahirik. *“Izan ere honek aukera eman diezaguke hogei urte hauetan euskaraz izan dituen gora-beherak baloratu, egungo egoera aztertu eta etorkizunean ditugun erronkak identifikatzeko”,* diote EHE-koek.

‘Euskararen Tunela’ izena duen erakusketa baten inguruan antolatu dituzte ekimen guztiak. Euskararen aldeko sentsibilizazioa lantzea, euskararen bilakaera zabaltzea eta herriko biztanleei ekimen kultural desberdinak eskaintzea du helburu tunel honek. Erakusketa hau Ordizian Eroskiren atzeko aparkalekuan kokatuko da, azaroaren 24tik 28ra.

Karpan prestatu duten egitaraua:

Azaroak 24: goizean, eskualdeko ikastetxeetako haurren bisita. **19:30ean**, Justiziari buruzko hitzaldia.

Azaroak 25: goizean, eskualdeko ikastetxeetako haurren bisita. **19:30ean**, Irakaskuntzari buruzko hitzaldia.

Ostirala 26: eskualdeko ikastetxeetako haurren bisita. **21:30ean**, euskaltzaleen afaria Goierriko trikitilari eta bertsolariek alaiturik.

Larunbata 27: Kontzertua **23:00etan**: Izurri Berriak, Berri Txarrak eta DJ.

Igandea 28: **17:00etan**, Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazoak; **18:30etan**, Goierriko dantzariak: Ordiziako Jakintza, Beasaingo Ostadar eta Aurtzaka, Zaldibiako Iztueta dantza taldeak.

Jokin Aldanondo presoa kalean

Jokin Aldanondo, jaiotzez segurarra, bizitzez beasainarra. Bi hilabeteren faltan, ia 13 urte egin ditu Espainiako kartzeletan zehar. 1997az geroztik zigorraren hiru laurdena betea bazuen ere, urriaren 27an kaleratu zuten.

1986ko abenduaren 27an atxilotu zuten, 21 urte zituela. Carabanchel, Alcalá Meco, Herrera de la Mancha, Cáceres, Ceuta, Langraitz, Burgos eta Basauriko kartzelak ezagutu ditu. Madrilgo Gobernuak 105 preso gerturatzeko hartutako erabakiaren ondorioz, azkeneko egunak Basauriko kartzelan egin ditu. Momenturik gogorrenak, sakabanaketa politikaren ondorioz, Ceutara eraman zutenean bizi izan ditu; bai berak eta bai bera bisitatzera joaten zirenek. *“Kartzelako bizi baldintza gogorrenak hangoak izan dira. Sakabanaketarekin damutuak atera nahi zituzten eta politika gogorra eraman zuten nahita, presio handikoa, ahalik eta minik handiena egiteko. Oso politika erasokorra zegoen. Lehenengo urteak oso gogorrak izan ziren”,* dio Jokin Aldanondok. Garai hartan gose greba gogorrak egin izan zituen, bizi baldintza hobekitzeko: 39 eguneko gose greba bat egin zuen eta baita 6-7 eguneko gose eta egarri greba ere.

Zigorraren 3/4a beteta zuen 1997az geroztik Aldanondok. Baina erredentzioen kontua ere hor dago, ulertzeko zail samarra bada ere. Kartzelaldian zehar, ‘onurak’ izaten dituzte eta egunak eta urteak pilatzen joaten dira, zigorra murriztuz. Erredentzioak kontuan hartuz, Aldanondok 20 urteko kartzela zigorra bete beharrean, 22 urte bete ditu.

Gose greba mugagabeaz kezkatutik

20 preso politikok hasi duten gose greba mugagabeaz oso kezkatutik dago Aldanondo. *“Kolektiboak egin duen gose grebarik gogorrena da. Kolektiboak gose greba hau hasteko erabakia hartu du, kalean erantzuna izango duela pentsatuz. Baina pertsonalki oso gogorra da. Ikusiko dugu nola aguantatzen duten. Hilabeteak iraungo ditu gose greba honek, batzuk uzten duten neurrian beste batzuk sartuko direlako. Aurrikusten den bezala irauten badu, jende bat oso gaizki jarriko da”.* Gose greba honek kalean eragina izan beharra daukala dio Aldanondok: *“jendea orain ez bada mugitzen, ez dakit noiz mugituko den, prozesu guztia nola dagoen ikusita bakarrik ere”.*



Omenaldia azaroaren 13an egingo zaio Beasainen, Plazan, 19:00etan.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



DELUQUENTA Pascual

ILEAPAINDEGI MIXTOA

Nafarroa Etorbidea, 17

☎ 943 882 248

BEASAIN

ORDIZIA

AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta

☎ 943 88 72 76



Alaitz Sarasola eta Irati-Ekaitz Goikoetxea irabazle

Joan den urriaren 31n banatu ziren Orexan XII. Orixen bertso-paper lehiaketako sariak. 14 bitartekoetan, Irati Goikoetxea, saritua izan zen 'Martintxo' izenburuko bertsoekin; 21 urtez azpikoetan, Ekaitz Goikoetxea, 'Euskaraz Bizi' bertso sortarekin eta helduetan, berriz, Alaitz Sarasola, 'Mokadu goxoa' lanarekin saritu zuten.

Aceraliak eraikuntza berria

Aceraliak 6.000 milioi pezeta inbertitu ditu Olaberriako lan-tegi berrian. Galdaketaren labe elektrikoa, zazpi lerroko gal-da, berotzeko labea eta izejketarako bi eraikin berri egin di-tu. Teknologia berriaren bidez, tamaina handiko altzairuzko habeak ekoiztu ahal izango ditu Olaberriako Aceraliak. Ur-tero ia 750.000 tona altzairu ekoizten ditu eta inbertsio be-rriekin 850.000 tonetara iritsiko da. Juan Jose Ibarretxe le-hendakaria, Josu Jon Omaz Jaurilaritzako Industria sailburua eta Aceraliako presidente Jose Ramon Alvarez izan ziren urriaren 26ko inaugurazio ekitaldian.

Ignazio Irastorza: Euskal Herriko gazta txapel-dun

Ignazio Irastorza 'Kaxine' artzainak irabazi zuen urriaren 31n Gasteizen, Euskal Herriko gazta txapelketa. Zaldibiako ardiki egunean bigarrena izan zen.

Iker Sukia, Jerezko Chapinera

Ataungo pisu jaurtitzalea taldez aldatu da. Real Sociedad taldea utzi eta Jerezko Chapin taldearekin fitxatu du. Espai-niako azpitxapelduna da Iker Sukia.

Bixente Barandiaran: 'Tratabideak'

Bixente Barandiaran itsasondoarrak hirugarren liburua kale-ratu du Auspoa argitaletxearekin: 'Tratabideak'. Garai bate-ko ganadu-tratuak azaltzen ditu batez ere liburu honetan, gehienak mutikotan amaren aitari entzundakoak.

Esklusioaren aurka eta karta sozialaren aldeko martxa Goierriin


'Esklusioaren aurka eta karta sozialaren alde' elkartasun mar-txa nazionala hasiko da Euskal Herrian, azaroaren 13tik 27ra bitartean, Gizarte Eskubideen Agiriaren aldeko Plataforma Na-zionalak antolatuta. "Helburua, Euskal Herria eraikitze bide-an, gizarte eskubideak bermatuz guztion eskubide diren hain-bat eta hainbat aldarrikapenen gizarteratzea da". Gizarteratze honetan edonork duela lekua adierazi nahi dute, "geure Goierri honetan ere badirelako Gutun sozialean bermaturik agertzen diren hainbat eskubide zapuztu eta zapalduak".

Azaroaren 19an iritsiko da martxa Goierriira. 12:30ean Ordi-zian sartuko da (Gaztetxe aurrean). Ordizian buelta emanda, Beasaina abiatuko dira oinez. Zubimuzu Plazan amaituko da eta bazkaria egingo da bertan, jaialdi txiki bat lagun. Martxa honen inguruan beste hainbat ekitaldi ere antolatu da: 20an, bi-zikleta martxa abiatuko da Ordiziako Arboledatik, 10:30ean. 13:00etan muralean bukatuko da. Pelikula proiektzioak ere an-tolatu dituzte Kultur etxeetan, 7etan: Zaldibian, 23an, 'Barrio'; Ordizian, 24an, 'Full Monty' eta Seguran, 25ean, 'Barrio'.

Pobrezia eta bazterketa soziala

Gizarte Eskubideen Agiriaren aldeko plataformakoen esanetan, "ekonomia ondo doa" dugu gure gizarteko erakunde guztiek gehien zabalduetako mezua. Baina gure gizartearen zati batek, ekonomi eta gizarte arloko arazo larriak jasaten ditu. Gure herrian, gutxieneko bizi baldintzarik ere ez duen jendea bada-go. Langabezia, behin-behineko lana edota etxebizitza duinik eza, eguneroko gertakari mingarria da. Gaur egun, gizarteko desberdintasunak ez dira murriztu, handitu egin dira", diote Plataformakoek. "Enpresariak aparteko irabaziaz dituzten bi-tartean, familien herena, hirutatik bat, pobrezia egoeran bizi da. Eredutik gure herriaren oinarri sozioekonomikoak hipote-katu egiten ditu, eta aldi berean konponezinak diren kalteak eta gaitzak eragiten ditu ekosisteman".

Plataformakoak atxekimenduak biltzen ari dira eta 5 pun-tutan oinarritzen da: "1.- Elkartasunean eta aberastasunaren banaketan oinarritutako gizarte ereduaren alde egiteko; 2.- Gure baliabide naturalen aurka egingo ez duen eta gure neka-zarien eta arrantzaleen sektoreek betetzen duten zeregina kon-tutan hartuko duen ekonomia eraikitzen esku hartzeko; 3.-Gure ingurunean, gure lantokietan, aisialdi lekuetan, ikastetxeetan erakundeetan... beharrik gehiena duten gizataldeei laguntze-ko; emakumezkoen, gazteen, urritu fisiko eta psikikoen nahiz za-harrei; 4.- Ahal dugun neurrian, gizarte zuzenagoa eta elkartas-un handiagokoa denontzat sortzeko; 5.- Enpleguaren banake-ta eta beharrean dauden pertsonentzat gizarte soldata ezartzea eragingo duten ekimen guztien alde egiteko".



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Goimen productions presents: 'El halcon blanco'

Duela urtebete baino gehiago kaleratu zen frantziar eta espainiar nazionalitatea duen filme bat egiteko asmoa. Filmea erdi aroan girtua izango da, eta honi eutsiz Aralarko gune menditsu bat aukeratu zuten. Baimena eskatu eta inorri eztabaidarako denborarik utzi gabe harresia erakitzeari ekin zioten.

Honi dagokionez, Aralar-ko artzaiek ere euren kezka azaldu zuten, Harresiaren eraikitzeak eragin zitzaizkeen ondorio kaltegarriak zirela eta. Inork ez zien inoiz erabakitzeak aukerarik eman.

Eraikina, metalezko egitura (30 m) eta egurrez osatua dago. 3-4 mko altuera izango du, lurrazpiko sakoneran zulatuko diren metroak kontutan hartu gabe. Lehenengo saiakeran egituraren zati bat eraikitzea lortu zuten.

Ekoizleen arteko barne arazo ekonomiko batzuk medio lana bertan behera utzi zen orain arte.

Astebete bada gaia berriz mahai gainean ipini dela. Diru usaia pelikula amaitzeko grina piztu omen die! Dirudien epea luzatzeko baimena eskatu dute eta hau izan daiteke ezetza emateko gure azken aukera. Goimen osatzen duten herrialdeek, azaroak 3, asteazkena, izango dute egun erabakiorra.

Esatekoa da Aralar parke natural izendatua izan zela eta baldintza bakarra ingurua egoera berean uztea izan zen. Goimeni filmea gauzatzeko proposatu zitzaionean. "Zergatik ez" argudiatu zuen.

"Zergatik bai?"

Honela, Goierriko AHT-ren aurkako asanbladakideok Goimenen handinahi usatea kritikatu eta proiektu farrakoniko zentzugabe hau atzera bota dezan eskatzen dugu.

*Goierriko AHTren aurkako
asanblada*

Aralar ez da Hollywood! Mendia garbia!

Idazki honen bidez, Eguzkik Aralarren dagoen zabarkeria-kasu bat salatu eta erantzule publiko zein pribatuari lehenbailehen konpon dezatela eskatu nahi die.

Igaratza-Doniturrietan, orain dela hamabost hilabete "gatzelu" bat egin eta hantxe abandonatu zuten. Itxuraz Erdi Arokoa den gatzelu hau burdin eta zur multzo bat baizik ez da. Jabeek ez omen dute horrekin ezer jakin nahi eta erakunde publikoek, hots, Foru Aldundiak eta Enirio-Aralar Mankomunitateak, ez dute ezer egiten.

Gatzeluko "harresia", mekanotuboz eta zuraz egina, 200 metro ingurukoa da. Hantxe daude ere burdinaz-

Goierritarra aldizkariaren 10. urteurreneko kontzertua atzeraturik

Goierritarra aldizkariaren 10. urteurrena ospatzeko, Euskaldunon Egunkariarekin batera azaroaren 6an antolatutako kontzertua, atzeratu egin zen, Ruper Ordorikaren ahots arazoak zirela eta. Oraindik zehaztu gabe dago kontzertua noiz izango den, baina aldeztu aurretik jakinaraziko zaizue aldizkariaren eta Egunkariaren bidez.

Sarrerak erosita badituzue, hurrengorako gorde. Zozketetan egokitutakoek ere bai. Lerro hauetatik, sortuta eragozpenak barkatzea eskatzen dizuegu. Bide batez, eskerrik asko.

ko bi txabola eta, jakina, hori dena haraino eramateko egin zuten pista berria. Horrek guztiak paisaia sortzen duen inpaktoa nabarmena da, batez ere materialak sakanatzen hasiak direla kontuan izanik.

Historio hau Mate zinema-produktorak Erdi Aroan girtutako filma bat arrodatzeko Euskal Herria aukeratu zuenean. Hasieran Urbanen arrodatu behar zuten, baina, bertako artzainak proiektuarekin bat ez zetozen gero, produktorakoek Aralarra jo zuten. Aralar-ko artzainak ere zetozen proiektuarekin bat, baina Goierriren irudira-ko onuragarria izango zen aitzakiarekin eta, Enirio-Aralar-ko Mankomunitateak baimena eman zuten.

Alquimodul enpresak gatzelua eraikitzeari ekin zion, pista berri bat irekiz eta egun abandonatuta dauden materialak haraino garraiatuz. Mankomunitateak emandako baimenaren ara-

bera, urtebete pasatu baino lehen enpresak paraje hura zegoen bezalaxe utzi behar zuen. Urtebete ez, baizik eta hamabost hilabete pasatu dira. Filmaz ez dakigu ezer. 'Belatz zuria' --hori omen zen izenburua-- hegan pasatu da arrastorik --arrasto zinematografikorik behintzat-- utzi gabe. Gatzeluak, ordea, han dirau, eta han iraungo du neurririk hartzen ez den bitartean.

Gauzak horrela, Eguzkik, salaketa gisa, 'Aralar ez da Hollywood - Mendia garbia' dioen pankarta jarri du gatzelun bertan. Horrela eskatu nahi du gatzelua desegiteko eta paraje hura zegoen bezalaxe uzteko. Mankomunitatea eta Foru Aldundia dira ardura dutenak. Beraz, egin beharrekoa lehenbailehen egin dezaten eta, gero, produktorari kargu har diezaio-tela. Gezurra dirudi Aralar bezalako Natur Parke batean horrelakorik gertatzea.

Eguzki

PSIKOLOGI KLINIKOA



**Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak**

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zembakia: E-2644
RPS: 42095
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

AURRE ZITA
☎ 943 887 221
☎ 610 020 041



ARANDIA
Garaiea

LADA
Ssang Yong
N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

AUTOEN KONPONKETA
Iurre Auzoa
OLABERRIA

Auto EASO



Ibabe industrialdea, 13 LAZKAO
☎ 943 16 30 15
☎ 606 301 955

Lehiaketa

Erantzun beharreko
galdera:

**Nola dauka
izena 'Imuntzo
eta Beloki'
taldeko
Belokik?**

Erantzuna azaroaren
22rako bidali behar da,
Ordiziako 124 posta-
kuxara.

Saria:
**'Imuntzo eta
Beloki'
taldearen
'Lousianara noa'
azkeneko diskoa
eta
GOIERRITARRA-
ren kamiseta**

Atzoko haur, biharko nerabe...

Atzo, haurra zinelako, dena galdetzen zenidan.

Egiarik garratzenak entzunaraziz samintzen ninduzun eta, aldi berean, gogoeta sakonetan murgildu.

Ateraldirik politenak belarrietaritzen zenizkidan algaraz lehertzen nintzelarik. Liluragarria zinen, goxoa eta gaitzik gabe, eskatutako muxu guztiak ematen zenituen. Esku tiki sorgin horien aginduetara ibiltzen ginen inguruko gehienok, Tolosako abesbatzen lehiaketan zuzendariek ere ez dute zuk bezain trebe gidatzen. Ez zenekien gezurra zer den, ez zenuen maliziarik.

Gaur, aukera egiten ikasi duzu. Egia handiak ezagutzen dituzun arren, gezur tikiak esaten hasi zara. Zure begirada berakka, urrunekoa edo zorrotza noiz edo norekin erabili, eguneroko bakar-hizketa-antzerkietan entsaiatzen duzu. Helduagoen umorearekin kuriketan aritzen zara zaplastekoaren mugaraino hanka ttattar horiek aurreratuz, baina, inoiz pasa gabe. Lortu nahi duzuna (ikusitako ia dena) eskuratzeko abildade aparta duzu, arerioa bananduz; bakoitzari galdera/eskaera bera eginaz une eta egoera desberdinetan, gau eta egun, jai eta aste, etsi gabe.

Bihar, biharrarekin batera nerabezaroa iritsiko zaizunean, egungo kottegia hain apain eta eztsua ez zaizunean, bart esaten zenizkidanak gogoraraziko dizkizut eta, ez dizkidazu onartuko. Zeurea egin nahiko duzu, bizitza eta ametsa soin-atalak elkarri erantsiriko bikiak balira bezala ikusten jarraituko duzu. Niri bizitzan hain beharrezko zaizkidan gauzek ez dutela hainbeste balio eta, lehentasunak zuk ere badituzula, harritzko ahotsean zizelkatu ondoren, nire belarzulora botako didazu herenegungo goxotasun ozpindua. Kalea zeharkatu eta beste espaloitik joatea nahiago izango duzu, nor joango da bada halako karkamalaren alboan?

Etzi, ni bezain handi eta munduko bola begi ninietan, zure lagunarekin(ekin) bizitzera joateko desiatzen zaudela esango didazu, ez baitago gure kobazuloan agoantatzerik, han sikiera telebistako mandoaren jabe izango zarela, horregatik bakarrik bada ere merezi duela aproba egitea. Etorriko zarela bisitan eta lasai egoteko ez duzula lorerik alferrik galduko zeuk nahi duzun azokan izan ezik.

Etzidamu, orain artean mutu egon ez den honek hizketan segiko du, bizitzak, berak uste zuena ekarri diolako eta zure begi ninietan itzulika dabilen bolatxo horrek zure izatea ere itzulika darabilenez, gaurko haurrak barneratu dituenak gogoraraziko dizkion ziurtasun osoz. Badaki, hartu-eman honetan egundoko sailak eman behar direla hartzen hasi aurrez eta, etsi ezean soilik lortuko duela zure etorkizunean ere gaurko haurra loratzea. Hori da berak jaso zuen dotea eta ez du hori besterik zuri eskeintzeko: pazientzia, entzuten jakitea eta itxarotea.



*Iñaki
Murua*



AUSO EGI

Urdaneta, 41
☎-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak





Bittor Jatetxea

San Martin zoriontsuak!

☎ 943 18 00 33 ☎

☎ 943 18 00 84 ☎

ATAUN

- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Bataioak
- Oturuntzak...

● *Menua eta karta*

Berezko aparkalekua

Lorategi pribatua

Umeentzako parkea

Goierritarra

laguntzeko zozketa

300.000 pezetako BIDAIA zure zain dago!



200 pezetaren truke

**Oraindik ez al duzu
GOIERRITARRA laguntzeko
errifarik erosi?**

Zeren zain zaude!

ERRIFAK ONDOKO LEKUETAN SALGAI:

- | | |
|--|---|
| ✓ Altzaga: Olagi sagardotegia. | Guadalupe tabernak. |
| ✓ Arama: Toki-Alai jatetxea. | ✓ Mutiloa: Ostatua eta Lierniko Mujika jatetxea. |
| ✓ Ataun: Lizarrustiko Parketxea eta Errotaundi okindegia. | ✓ Olaberria: Zezilionea. |
| ✓ Beasain: Anzizar, Basakana, Itzala eta Aterpe tabernetan eta Bideluze plazako kioskoan. | ✓ Ordizia: Pottoka, Arantxa, Eroski tabernak, Foto Sistema argazkidenda eta GOIERRITARRAren bulegoa. |
| ✓ Ezkio-Itsaso: Itsasoko Ostatua. | ✓ Ormaiztegi: Arantxa eta Itxune tabernak eta Estanko janaridenda. |
| ✓ Gabiria: Ostatua eta Korta. | ✓ Segura: Imaz taberna. |
| ✓ Idiazabal: Xume taberna eta okindegia. | ✓ Zaldibia: Goiagi okindegia eta Illati taberna. |
| ✓ Lazkao: Gerriko eta Kiroldetia tabernak eta Gerriko liburudenda. | ✓ Zegama: Txantone taberna. |
| ✓ Ligorreta: Olaso eta | ✓ Zeraine: Mandioa taberna. |

Zein pertsonaia mitologiko gustatutako litzazuke izatea?

Ataungo Muski mendiko Basajaun izango nintzateke, baina aldaketa txiki batekin: Samartin Txikiren adiskide.

Ataungo zein ipuinekin egin daiteke pelikula bat?

Askorekin. Bat aukeratzeko Agerre baserrira jokora jaisten ziren jentilen urrezko ohe-gainekoaz. Jentil Gerard Depardieu eta Agerreko jaun Sean Connery.

Irrati esatari lana ala 'Jentilen etorrera' antolatzea nahiago?

Ai, ai, asteak balira jai... Ez dago arrosarik arantzarik gabe. Ogirik ere ez, nekerik gabe.

Gustura emango zenukeen albiste?

Egiazko bakea dugula Euskal Herrian. Goserik eta gerrarik ez dela. Gainerakoan albiste hauxe emango nuke gus-tora: gazteek badakitela eta zaharrek badezaketela.

Ahotsa zaintzeko sekretua:

Ez dut behar hainbat zaintzen. Beste erremediorik ez denean, limoi urarekin

eta eztiarekin gar-gar eta bor-bor egin behar.

Bertsoa osatzeko puntua jarri.

Ea loreten dugun guztiok LIZARRA...

Mondejua ala odolkia?

Ataungo mondeju beltza. Nire amandre zenak bezala prestatuta.

Oporretako leku bat?

Bakardade piska batekin eta konpainia onarekin, edozein txoko. Mendia nahiago aukeran.

Zer jarri, zer kendu, zer hobetuko zenuke Ataunen?

Jarri, hondar ale bat herritar ba-koitzak herriaren alde. Kendu, auzokeria. Hobetu elkarren arteko harremanak.

On Joxe Migel Barandiaran:

Gizon txiki handi bat. Mirari bat. Be-rari esker ditugu euskaldunak zer izan garen eta zer garen. Betirako galtzera zihoan mundu bat eta mundua ikuste-ko modu bat gorde digu. Euskal He-rriak Euskal Herriarentzat eman duen gizonik handiena.



Jon Aizpurua

**Irrati esataria eta
Ataungo 'jentilen
etorrera'ren
antolatzailea**

Koldo KEREJETA AIERBE

Koldo KEREJETA AIERBE

IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZAK

© 943 18 00 56 - 989 80 51 21 (mugikorra)
Helbarrena, 27 - 2. ezk. **ATAUN**

INAZIO GARMENDIA

Harategia

☎ 943 18 00 32
Dorronsoro-enea
ATAUN

GENERALI

Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

Barandiaran

ZERAMIKAK

- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**

Egitaraua

Azaroak 12, ostirala, koadrilen eguna:

12:00etan: Juntadizoa eta poteoa trikitilariekin.

14:00etan: Koadrilen arteko bazkaria Bitor jatetxean. Bazkal ondoren jokuak.

22:30ean: Rock kontzertua kalustran: Spirium Na-crem eta Naftena.

22:30ean: Bertso jaialdia Auzaeta Udal Kiroldegian: Andoni Egaña, Joxe Agirre, Maialen Lujanbio, Joxe Munduate, Sebastian Lizaso, Anjel Mari Peñagarikano eta herriko bertsolari gazteak: Haitz Aierbe, Oier Zurutuza, Iban Urdangarin eta Aitzol Munduate. Gai jartzailea: Jon Aizpurua.

24:30ean: Musu-truk taldearekin dantzaldia.

Azaroak 13, larunbata, umeen eguna:

12:00etan: Herriko preso, errefuxiatu eta deportatuen aldeko zenbait ekintza Ezker Abertzaleak antolatutako: poteoa, omenaldia, herri bazkaria eta ondoren poteo herrikoia txarangarekin.

12:00etan: Toka txapelketa plaza berrian.

13:00etan: Kalejira bu-ruhaundi eta txarangarekin.

14:00etan: Umeen bazkaria Joxemiel Barandiaran Eskolan.

16:00etan: Mus txapelketa Oargin.

17:00etan: Jaialdia "Kiki, Koko, Moko eta Flax" paila-soekin. Auzaeta udal Kiroldegian.

21:00etan: Herri afaria Bitor jatetxean.

24:00etan: Basajaun taldearekin dantzaldia.

Goizaldera Txokolatada izango da.

Egunean zehar txaranga ibiliko da kaleak alaitzen.

Azaroak 14, igandea:

13:00etan: Herriko dantza taldearen saioa plazan.

18:15ean: Jentilen etorrera.

Ondoren Mondeju jana kalustran.

20:00etan: Agautz taldearekin dantzaldia.

Ataungo Hiru Au

Ataungo Hiru Auzkoetako Korrikaldiak XX. urtea du aurten. Ospatuko ez zenaren zurrumurrua ere zabaldu da eta antolatzaileengana jo dugu honen berri jaitera. Xabier Eskisabelek eraman du azken urte hauetan korrikaldia martxan jartzearen zama. Hala ere aurten denera ezin iritsi eta uzteko asmoa azaldu zuen. Hau jakitean Aitor Goikoetxea, Iñigo Aldasoro eta Xabier Urdangarin 'Lopetxe' antolakuntza lanetan parte hartzeko prest azaldu dira, baita lanean hasi ere.

Xabier Eskisabel azken urteetan bezala, korrikaldia antolatzeko asmotan zebilen. Eguna, azaroaren 7a, gerturatzan ari zitzaion, bakarrik zengoen, gauzak egin beharra zeuden eta ez zen denera iristen. 15 egunen faltan esan zuen ez zela posible antolatzea. Jende askok esaten zuen pena zela baina inor ez zen laguntzera animatzen. Horrela, astebete beranduago Iñigo, Aitor eta Lopetxe prest azaldu ziren. Xabierrek dioenez, "azkeneko 5-6 urtean bakarrik aritu naiz lanean eta helburu bezala XX.a antolatzea nuen, baina ez nintzen denera iristen". "Guk etsita ikusi genuen eta laguntzea erabaki genuen", gehitu du Iñigok.

Xabierrek dio ez duela beste munduko lanik suposatzen, baina bakarrik egiteko asko da. "Korrikaldia Oargi elkarteak antolatzen du. Baina lehen ziklo bat izaten zen, hasieran sartu eta besteei laguntzen hasten zinen, gero zaharrenek uzten zuten eta gazteek jarraitzen zuten, baina elkarteak indarra galtzen joan den eran gazterik ez da antolakuntzan sartu". Orain ari da jende gaztea Oargi elkarte berriro martxan jartzen. Antolatzaileek datorren urtean gazte horiek korrikaldiaren antolatuko duten itzaropena dute.

Ataungo lasterketa XX. ekitaldiarekin antolatzen direnetan zaharrenetakoa da. "100 lasterkari inguruk parte hartzen du, ez da beste

SUKIA HARATEGIA

Festa onak pasa herritarrok!

San Martin

ATAUN

☎ 943 18 03 45

JOSUNE ARRAINDEGIA

San Martin zoriontsuak denoi

☎ 943 18 03 67 Altzanipe
ATAUN (San Martin)

Grupo Bateak

SEGURUEN PROFESIONALAK

Jai zoriontsuak denoi!

MUNDUATE

Hirigoién, 12

Tfnoa.: 943 88 86 20

Tfno. mugikorra: 609 49 14 41

Faxa: 943 88 91 18

LAZKAO

Auotako XX. Korrikaldia azaroaren 21ean

munduko jendetza baina herrian giro berezia sortzen da eta herrian zerbait antolatzen dela, herri bizia dela nabarmentzen da", gehitu dute.

Behobia-Donostiaren ondoren

Beti festa inguruan izan da, hauek ekainean ospatzen zirenean, ekainean. San Martinetara pasa zirenean, korrikaldiaren eguna ere aldatu egin zen. Urte pare batean Behobia-Donostia lasterketarekin kointziditu zuen eta beti aurretik jartzea erabaki zuten. Normalean festen aurreko astean ospatu izan da. Baina urteren batean Behobia ondoren ere izan da. Aurten prestatzeko denborarik ez zutenez, Behobia ondoren izango da.

Lasterketak 17,8 km ditu, lehenengo dena goraka da Aiaraino. Kaxetatik Aiarako aldapa da gogorrena, gero hortik aurrera dena beherakada. "Bere grazia du, goraka zoazela lehenengoak behera bidean ikusten dituzu, aukera hori ez da beste lasterketetan izaten", dio Aitorrek.

Partaide gehienak goierri-



Iñigo Aldasoro, Xabier Eskisabel eta Aitor Goikoetxea antolatzaileak. Argazkian Lopetxe falta da.

tarrak dira baina Euskal Herriko edozein bazterretatik azaltzen da bakarren bat. "Adibidez, lehenengo batean Donostiatik norbaitek deitu zuen korrikaldiaren xehetasunak galdetuz eta dena azaldu ondoren 'eta Atauna joateko?' galdetu zuen", azaldu digu Iñigok.

Hasieran herritar ugari

Hasiera batean boom-a izan zen eta herriko jende askok parte hartzen zuen, 150era partaideetara iritsi zinen. Gero beherakada bat egon zen eta berriro sendotzen ari da,

orain 100-120 partaide artean ibiltzen gara.

Diru aldetik beti larri

Hasieran herriko jendea jartzen zen bidegurutzetan, bidea moztzen zen eta ez zen ezer gertatzen. Gero baimena eskatu beharra izan zuten, gero errepidea ezin zela hainbat denbora baino gehiago moztu eta bide erdian piboteak jarri behar zirela, beti gastuak igotzen joan zaizkie. Xabierrek gogoratu duenez, "urte batean lasterketa aurreko ostiralean ertzainek esan zidaten San Martindik

Kaxetaraino piboteak jarri beharra zegoela. Ostiral arratsaldean nola lortu behar nituen. Herriko herri ibili nintzen piboteak biltzen. Azkenean alkatatu beharra izan genuen. Gainontzean Udaltxarekin dextentean moldatzen gara. Ahal dugun moduan dagoen dirura moldatu beharra izaten dugu". Aurreko urteetan sariak erosi egiten zituzten, aurten herriko dendetan eta eskatu dituzte. "Lehen beti eskean ibiltzen nintzen, baina urtero pertsona berdina eskean aspertu egiten da. Aurten diru sariak ematera iritsiko garela uste dut. Parteartzaileen artean hainbat zozketa ere egingo dira". Egunean 40 bat lagun behar dira antolakuntzan laguntzeko. Horretarako inoiz ez da arazorik izan.


Emakume gutxik parte hartzen dute, iaz bik bakarrik bat herrikoa eta bestea kanpoko. Urte pare bat ere izan ziren neskarik atera ez zena, "pena ematen zuen". Irteera goizeko 11etan izango da. "Bi orduko muga dago bukatu ahal izateko. Ez da hain zaila eta beraz animatu neska eta mutil".

TROSKAETA
Jaiak gozo-gozo pasa Troskae-tako nesken partetik
☎ 943 18 00 37
ATAUN (San Martin)

ERBIETA ATETXEA
Festa zoriontsuak denoi!
☎ 943 18 00 19 **ATAUN (S. Martin)**

ERAUSKIN
HARATEGIA - URDAITEGIA
KALITATEKO **EUSKAL OKELA**
Odokiak, ondeju beltzak eta txorizoak
San Martin jai zoriontsuak denoi!
☎ 943 18 00 27 **ATAUN**

Agurtzane
Heapaindegia
Altzanipe, 2
☎ 943 18 02 93
ATAUN (San Martin)



ZUBIKOETA
GASOLINDEGIA
● Gasolina, gasoila A eta C
● Berogailuentzat gasoil banatzailea
● Autoaren garbiketa moeta guztia
☎ 943 18 04 86 - faxa: 943 18 04 87
Zubikoeta Industrialdea ATAUN

San Martin azoka azaroaren 13an Zegaman: Urbia eta Aizkorriko gazta txapelketa


Zegamako San Martin azoka, nekazari eta abeltzainen eguna, azaroaren 13an ospatuko da, bertako Udalak antolatuta. Ohiko abere eta ganaduen lehiaketa eta fruitu eta barazkien erakusketez gain, Urbia eta Aizkorriko artzainen I. Gazta lehiaketa izango da aurten. Tradizio handiko eguna da San Martin azoka Zegaman, 100 bat urte dira lehenengo aldiz egun hau ospatu zutela. Garaiak aldatu badira ere, nekazari eta abeltzainen eguna izaten jarraitzen du. Eguraldiak lagunduko duelaren esperantzan daude antolatzaileak.

Aurtengo San Martin azoka berrikuntza nagusi batekin dator. Egun honek haize berri piska bat behar zuela eta, Urbia eta Aizkorriko artzainen Gazta lehiaketa antolatu da aurten lehenengo aldiz. Arabako Partzuergoan, Partzoneri Txikian edota Zegamako zelaietan larrean egiten duten artzainei zuzendua dago. Artaldean, gutxienez, 75 buru izatea da beste baldintza bat.

Epaimahaia 4 lagunek osatuko dute: Idiazabal deiturako kide batek, Pello Zabalak, Andoni Aizpuruk eta Pello Garcia Amiano gastro-

nomo eta kazetariak. Irabazleentzat sariak hauek izango dira: 40.000, txapela eta garaikurra, 20.000 eta 15.000 pezeta.

Artzainek gustora hartu omen dute lehiaketa, nahiz eta berandu samar ibili diren antolatzaileak, lehenengo aldi honetan. "Artzainei lehiatzea gehiegi gustatzen ez zaienaren sentsazioa jaso dugu. Artzainak normalean konforme izaten dira beraiek egiten duten produktuarekin. Artzainak gaztari irteera ona ematen dio, gazta guztiak saltzen baititu. Baina nolabait, artzainek kasu honetan,



Juan Inazio
Galdos
Zegamako
alkatea.

herriaren aldeko ekintza bat bezala ulertu dute, horrelako lehiaketa bat antolatzea erakargarria izan daitekeelako", esan digu alkateak.

Artzainak protagonistak

Idiazabal gazta deituraren inguruan Zegamak zerikusi handia dauka. Juan Inazio Galdos alkatearen esanetan, "geure artzainei eta geure inguruneari laguntzeko antolatu dugu lehiaketa. Idiazabal izena, inguruan ditugun artzainetan datza eta hori azaldu nahi dugu. Egune-

roko lanean dabilen artzainek eta Idiazabal deituraren azpian sartzen garen herriak ez gara inon azaltzen, ez daukagu inolako protagonismoa gai honetan. Beraz, Artzainen papera goraipatu nahi dugu, pelikula honetako protagonista nagusiak beraiek baitira". Artzainaren irudia indartu nahi dute. "Oso mundu ponposoa da baina sustraiak arrisku biziaren daude. Artzainek erreleboa behar dute eta Udal mailatik laguntzak ematen ari gara. Etorkizuna bermatzea garrantzitsua da".

BENITO
Harategia
Urdaitegia

© 943 80 02 05
S. Barbara, 8 ZEGAMA

AITZKORPE
TABERNA
Egun ona para dezagula opa dizuegu!
S. Martin, 15 ☎ 943 80 11 62
ZEGAMA

Vendi
EDURNE
JANARIDENDA
Egun ona opa dizuegu!
☎ 943 80 15 66 ZEGAMA

URBIZU ☎ 943 80 19 99
ZEGAMA
ROGS. 11.141462 - 14.01.462/SS
OILOTEGIA 

Tradizio handiko azoka

Zegaman lehendabiziko San Martin azoka egin zela 100 bat urte dira. Murgizelai zelaietan egin omen zen. Tartean gerra zibila izan zen eta galduta egon zen urte batzutan. 1968. urte inguruan, Zegamako alkatea eta Gipuzkoako diputatua zenak, Manuel Urbizuk, suspertu zuen ahaztuta zegoen nekazari eta abeltzainen eguna. Garrantzia handia zuen garai batean egun honek, herritik kanpora joandako baso-mutilak eta Partzoneriako artzainak herrira itzultzen baitziren martxoaren 1era arte, negua pasatzera. Baso-mutilak Araba eta Nafarroako basoetara joaten ziren.

Baserritarren eta abeltzainen mundua antolatzeko aprobetxatzen zen San Martin eguna. 'Hil hermandadeak' eta 'Ganadu hermandadeak' izaten ziren garai hartan eta urtean zehar ordaindu beharreko kuotak, eta abar zehazten zituzten. Su-arok, aseguruak, finkatzeko eta abar ere aprobetxatzen zen eguna. Orain dela 20 bat urtera arte, San Martin egunean bertan ospatzen zen egun hau. Geroztik San Martin on-



dorengo larunbatean ospatzen da.

Ganadua, barazkiak, fruituak

70. hamarkadan Manuel Urbizu eta Joxe Telleria alkate zirenean, Diputatu ere baziren, Gipuzkoa mailako abereen txapelketa egiten zen. Urte batzuetan mantendu egin zen eta arrakasta handia izan zuen. Gero Diputazioetik herri mailako azokak bultzatzea erabaki zen.

Gaur egun herri mailako festa da. Abere eta ganadu lehiaketak, landare, fruitu eta barazki erakusketak, artisau erakusketa... izaten dira. "Baserritarren presentzia garrantzitsua da baina festa urbano bihurtzen doa beste azoken antzera", dio alkateak.

San Martin azokako egitaraua

9:00etatik 12:30era: Herriko abereen lehiaketa, futbol-zelai zaharrean.

9:00etatik 14:00etara: Landare, fruitu eta barazkien erakusketa; eta artisau eta eskulangintza erakusketa, Eliza eta Udaletxeko arkupeetan.

10:00etan: Bailarako txistularien kalejira herriko kaleetan zehar.

har.

11:00etatik 13:00etara: Urbia eta Aizkorriko artzainen arteko gazta lehiaketa, pilotalekuan.

12:30ean: Abere lehiaketaren sari banaketa, futbol-zelai zaharrean.

13:00etan: Gazta lehiaketaren sari banaketa, pilotalekuan.

13:30ean: Txistularien saioa, Maiora plaza inguruan.

17:30ean: Buruhandi eta erraldoiekin kalejira, txistulariek alaiturik.

18:00etan: Herritarren arteko eskuz binakako San Martinetako lehen txapelketa, pilotalekuan.

Ondoren: Aizkora apustua herritarren artean, pilotalekuan: Joxe M. eta Esteban Arakama anaiak, Inazio Katarain eta Joxe M. Esnaolaren aurka.

23:00etatik 03:00etara: Rock jaialdia herriko plazan: Naftena, Supurium Nakrem eta Unholdy.

Saskigintza erakusketa

Kutxak antolatutako saskigintza erakusketa ikusgai izango da Kultur Etxean, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

MANOLO Edaritegia



Pintxoetan aukera haundia!

☎ 943 80 12 36
ZEGAMA

Zegamako OSTATUA




Arrain eta mariskoetan espezializatua
☎ 943 80 12 99



☎ 943 80 03 10

ZEGAMA



BAZTARTXO

Egun zoriontsua pasa dezazuela eta gau hobea!

Atari kalea ☎ 943 80 03 40 **ZEGAMA**

Gabiriako IV. errezil sagar lehiaketa eta baserriko produktuen azoka, azaroaren 21ean

Gabiriako errezil sagar lehiaketa eta baserriko produktuen azokaren IV. ekitaldia azaroaren 21ean izango da. Errezil sagarra bultzatzea, kanpoko bisitariei herria ezagutaraztea eta herriko baserritarrei beraien produktuak saltzeko aukera ematea helburu hartuta antolatu dute eguna aurten ere Gabiriako Udalak eta Erbie elkarteak.

Goizez, 10:00etatik 14:00-etara izango da festa. Eguraldi onarekin plazan eta txarrek, pilotalekuan. Herritarren arteko errezil sagar lehiaketa izaten da Gabiriakoa. Iaz 14 lagunek hartu zuten parte.

Epaimahaikoak hiru izango dira, aukeran lau badira ere: Otatzako Joxe Antonio Iparragirre, Ostatuko Martin Irizustabarrena, Bittor Sukia



Maria Isabel Zumalakarregi omenaldia

Errezil sagarren lehiaketan Maria Isabel Zumalakarregi izango da omendua. 69 urte ditu. Sagar urte txar samarra izan bada ere, onenak herriko lehiaketarako sailkatuak dauzka. Sagarri eman egin omen behar zaio, sagarrak ere ematea nahi badugu. Hurrengo alean berari egindako elkarriketa kaleratuko dugu.

zaldibiarra eta Salbador Gorostola, Diputazioko Nekazaritza sailekoa.

Sariak: irabazlearentzat 10.000 pezeta eta garaikurra, Erbie elkarteak emana; bigarrenarentzat 8.000 pezeta eta garaikurra, Korta jatetxearen eskutik; eta hirugarrenarentzat 6.000 pezeta eta garaikurra, Ostatuaren eskutik.

Urtero omentzen dute errezil sagarrekin zerikusia

duten herritarren bat eta aurten Maria Isabel Zumalakarregi omenduko dute. Ordiziako Unanue gozotegiak emango dio oroigarria.

Eguerdiko ordu bata aldean, saskikada bat errezil sagar, 20 bat kilo, zozketatuko dira. Goiza alaitzen, trikitilariak izango dira: Oihane Arratibel gabiriarra, eta Oihana Katarain eta Nagore Lizaralde ormaiztegiarrak.

Iaz trafikoa erekin arazoren bat edo beste izan bazen ere, aurten trafikoa zuzentzen herritarrek egongo dira.

Udalaren eta Erbie elkarteak finantzatzen du lehiaketa eta azoka beste diru-laguntzarik ez daukate. Aurten, Jon Mikel Murua Nekazaritza eta Ingurugiro diputatua gonbidatuko dute. *"Gurasoak gabiriarrak dira eta bera Ormaiztegiakoa. Hurbilekoa da, ez bakarrik geografikoki; mahats eta txakolinetik baino hurbilago dagoelako sagar eta sagardotik"*. Datorren urtean Gipuzkoako Foru Aldunditik diru-laguntzaren bat iritsiko zaielakoan daude.

Sagardo erakustaldia

Eguraldiak laguntzen badu behintzat, sagardoa nola egiten erakutsi nahi da, Agerre baserrikoen prentsa txikiarekin. Jendearen artean banatuko da muztioa. Datorren urteari begira, sagardoaren inguruko tresneriaren erakusketxo bat egiteko asmoa daukate gabiriarrak.

Unanue
GOZOGINTZAK
egun ederra pasa dezazuela opa dizkizue!

Nagusia, 17 ☎ 943 88 15 51
J. M. Barandiaran, 9 ☎ 943 88 88 36
Obradorea:
Filipinas, z/g ☎ 943 88 12 65
ORDIZIA
Nafarroa etorbidea, 10
☎ 943 16 22 66
BEASAIN

KORTA
SAGARDOTEGIA ERRETEGIA
☎ 943 88 71 86 **GABIRIA**

OSTATU
JATETXEA
Bazkariak Afariak
Ospakizun bereziak, bataio, jaunartze
Lagunarteko afariak
☎ 943 88 79 13 **GABIRIA**



Gabiriako Udala

IV. Errezil Sagar Lehiaketa

Azaroak 21

*Egun ederra pasa dezazuela
herritarrok eta kanpotik
zatoztenok!*

Ardoa dastatzeko aukera paregabea asteburuan

Azaroaren 15tik 21era bitartean Arabar errioxako ardoak dastatzeko aukera ezin hobea izango da. Aurreko aurteetan izandako erantzun ona ikusita Ardoaren VII. Astea antolatu du Udalak. Aste barruan ardo dastaketa praktikoak, hitzaldiak, aurkezpenak... izango dira Barrenan, beti ere mugatuak. Interesa duenak eman izena Barrenan edota 943805630 telefonoan.

Azaroaren 15ean, astelehena, Mikel Zeberio gastronomoak Arabar errioxako upategi eta hauen ardoen berri emango du. Asteartean, Samaniegoko Ostatu bodegak bere ardoak aurkeztuko ditu. 17an, asteazkena, Manuel Ruiz Hernandez enologoaren txanda izango da, ostegunean Oiongo "El Coto" upategiko ardoen aurkezpena eta azkenik, ostiralean, La Pueblako "Covila" ardoen txanda.

Asteburuan, ohikoa den bezala, Enparantza Nagusian hainbat upategik standak ipiniko dituzte, euren ardoak dastatzeko aukera izango dutelarik bertaratzen diren guztiek Momentuz 15 bodegek bertan izango direla baieztatu dute.

Bertsotan kale

Irristaldi batek eta pota pare batek utzi zuten Goierri-Ordizia taldea Gipuzkoako Herri Arteko Bertsolari Txapelketatik kanpo. Beasainen jokututako saioa paretsu joan zen baina azkenik Urnieta-Andoainek 1.542,5 puntu eta Ordiziak 1.516,5 eskuratu zituzten. Ordiziako taldean Mikel Mendizabal, Joxe Munduate eta Xabier Narbarte aritu ziren.

AEK eguna

Urriaren 24an Saran ospatu zen AEK egunean egindako zozketan, saritua irten zen zenbakia honakoa izan zen: 20.717. Zenbaki hau agertuko ez balitz 40.568 zenbakidun boletoa duenarentzat izango da saria.

Malkaskoko zubia

Gipuzkoako Diputazioko Garraio eta Errepide Sailak onartu berri du Malkaskoko zubia berritzeko egin beharreko lana. Guztira 40 milioiko kostua aurrikusi da eta lanak 2.000 urte amaierako amaituta egongo direla espero da.

Aitor Calvillo



Presoen gose grebarekin elkartasuna

Azaroaren 5ean, agiri bat irakurri eta ondoren manifestazioa egin zen herriko kaleetan. Euskal preso politikoak mugagabeko gose greba egitera hasi diren honetan. Gose grebarekin "irtenbide politiko eta demokratiko baten alde apustua eta ekarpena" egin nahi dute. 20 preso daude gose greban, tartean Asier Irastorza ordiziarra. Gose grebaren eskakizunak hauek dira: "Euskal nazio eraikuntzan euskal gizarte osoarekin batera parte hartu ahal izateko euskal preso guztiak kalean izatea, hau da, amnistia. Hau lortu bitartean, beraien eskubideak errespetatu izan daitezela: euskal presoak Euskal Herrira ekartzea, beraien militantzia politikoak eskatzen duen izaera politikoa aplikatzea, gaixorik daudenak kaleratzea, 3/4 beteak dituztenak kaleratzea eta entrega eta estradizioekin amaitzea".

EH, Gazte Ekimena, Ordiziara plataforma eta Aministia-ren Aldeko Batzordeek eta sendiartekoek eman zuten prentsaurrea. Egoera honen aurrean, euskal mugimendu sindikal, sozial eta politikoei hausnarketarako gonbitea luzatu die eta konpromezua ager dezaten eskatu, presoak erabaki latz hau hartzera eraman dituzten arrazoiak ugariak direla azalduz: "beste biderik ez dutelako beraien eskubideak behingoz eta betirako errespetatuak izan daitezzen".

Ordizian: merkatarientzako jardunaldiak

Ordizianek, merkataria, ostalari eta zerbitzuen elkarteak, Eusko Jaurlaritzako merkataritza sailaren diru-laguntzarekin, merkatariei zuzendutako jardunaldiak antolatu ditu. Azaroaren 18an, 'Publizitatea denda txikietan' izeneko jardunaldia izango da eta azaroaren 24 eta 25ean, 'PFEZ berria eta enpresa jarduerak' izenekoak. Jardunaldiak Barrenan izango dira, eguerdian. Elkarteko kideentzat dohainik izango da eta gainerakoentzat 1.000 pezeta kostatuko da. Informazio gehiagorako eta izena emateko telefonoa: 943160673.

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:


Lanegunetan:

☎ 943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

ChristianDior

San Inazio, 14 ☎ 943 889390 BEASAIN



San Martin jaiek jarraipena izango dute asteburuan

San Martin bezperan, azaroaren 10an, hasi ziren jaiak. Txupinazoa eta ohiko gaztaina jana izan ziren iluntze partean. Eider eta Oihana trikitilariekin erromeria izan zen goizalderate.

San Martin bezperako gaztaina jana aspaldiko ohitura da eta gai honen inguruan, elkarriketatu dugu Joxe Mujika herritarra. 29. orrialdean duzue elkarriketata.

San Martin egunean, txistularien goiz eresiarekin esnatu eta meza nagusia izan zen. VII. pala txapelketa ere bai. Arratsaldean herriko trikitilarien saioa izan zen.

Gaur, azaroak 12, gaupasa eguna dugu. 23:00etan sokatira izango da lehenengo eta ondoren, Amaia eta Kristina trikitilari taldearekin, gaupasa egiteko aukera izango da. Tarteetan, indarberritze saioa ere antolatuta dago.

Bihar larunbata, azaroak 13, eguerdian hasiko da fes-



Alaitz eta Maider trikitilarien taldeak larunbateko gaua alaituko du.

ta. 13:00etan, poteo elegante egingo da. 14:30ean, mutil-zahar eta neska-zaharren bazkaria izango da.

Arratsalde partean, 15:00etan hasita, haurrek nahi adina jolas egiteko aukera izango dute jolas parkean.

Gauean, hain modan dagoen taldearen txanda izango da: Alaitz eta Maiderrekin dantaldia 23:00etan.

Igandean amaituko dira aurtengo San Martin jaiak. Goizeko 11etan Meza nagusia izango da eta ondoren, 12etan, soka dantza egingo dute herriko agintariak.

Arratsaldean, 18:00etan, Gorritiren show-a, bere animaliekin. Ondoren, Epelde eta Larrañaga goizalderarte. Segidan, azken traka. Ondo pasa festak!



TOKI-ALAI Jatetxea

bataioak, jaunartzeak
bazkariak, afariak
eguneroko menuak

Tfnoa.: 943 88 89 53

ARAMA



ARAMAKO UDALA

Arama Gipuzkoako herririk txikienetako bat da (1,3 kilometro karratu ditu). Ibarrak errota Erret Bidetik Aramara sartzeko zegoen zubi ondoan dago kokatuta. Aurreko mendekoa da eta, etenalditxo bate ondoren, oraindik martxan dago. San Martin parrokia da herriari nortasuna ematen diona. Bertan dagoen Amabirjinaren taila da aintzinatik jasotako argibide bakarra. 1993tik estalitako pelotaleku zoragarri bat du. Ezagutzeak dira Apaiz etxea, Triarte eta Jturrioz baserriak.

Azaroaren 11n dira festak. San Martin bezperan gaztain jatea izango dugu: gaztainak eta ardoa Udalaren kontu. Herritar nahiz kanpotarrak gonbidaturik gelditzen zarete.



Etxebizitza eta tasen inguruko erabakiak

Jose Angel Garmendia eta udala akordio batera iritsi dira Untzundegi baserri inguruan dauden lur sailei dagokienean. Bertan dauden bi partzeletatik bat udalarena bazen ere, bestearen %13a Jose Angelen izenean zegoen. Hala ere, bi alderdien adostasunez terrenoa udalaren eskuetara pasatu da. Permuta burututakoan, lur sail hau Eusko Jaurlaritzari luzatuko zaio. Ondoren, babes ofizialeko 16 etxebizitza eraikiko dira bertan.

2000. urterako tasak ere erabakiak izan dira. Arau orokorra IPC-aren igoera aplikatzea izango da. Baina bada salbuespen bat: uraren gaineko tasa pixkat altuagoa izango da. Izan ere, udalak urak sortzen dituen gastuetatik %74a ingresatzen du. Baina kopuru hau %85era igotzea lortu nahi da 2.000. urterako.

Elkarrizketaren alde

EAJ, EA eta EH bat etorri ziren Euskal Herrian zabaldu-tako bake prozesu demokratikoak azken aldian jasan dituen erasoei aurre egiterako orduan. Hiru alderdi hauen batasun hau argi gelditu zen azaroaren 2an egin zen manifestaldi isilean. Ekintza hau burutzeko arrazoiak Lazkaoko bizilaguna den Belen Gonzalezen atxiloteta izan zen.

Belen ETA eta Estatu espainiarraren artean izandako elkarrizketetan mintzakide izan zen. Ondorioz, bere atxilotetak Euskal Herriko normalkuntza politikorako bidea ez duela inolaz ere bultzatzen erabaki zuten EAJ, EA eta EH alderdiek.

Marrazketa ikastaroak pil-pilean

Azaroaren 17an Kultur Etxeko eskulanetako tailer berrian 4. marrazketa eta pintura ikastaroari hasiera emango zaio. Otsailaren 11an amaituko den kurtso hau edonori zuzenduta dago, hau da, bakoitzak bere mailari dagokion ikastaro propioa jaso ahal izango du.

Maider Urretabizkaia izango da haurren taldearen irakaslea eta helduena Josu Konde. Maila ezberdinak izan arren, bi ikastaroen kostua 10.000 pezetetakoa izango da. Erdia izena ematera-koan Udaletxean ordaindu beharko da. Gainontzekoa, berriz, ikastaroa amaitzean.

Goierriko Euskal Eskolak ere beste ikastaro bat antolatu du kotoizko arropetan marrazkiak margotzen ikasteko. Informazioa agendan 27. orrian.



Futboleko gogor

Lazkaoko neskek gogor borrokatuz daramatzate hainbat urte. Zortzi edo bederatzi urteekin jolasean hasi eta gazte mailara iritsiak ditugu. Urteen joan etorrian beraien teknika hobetuz joan da nabarmenki. Lehengo urtean Gipuzkoa mailan egin zen txapelketan erdi aldean gelditu baziren ere, aurten marka hori gainditzeko asmoz datozkigu. Hilabete da txapelketari hasiera eman zaiola eta lau partiduetatik hiru irabazi dituzte neska hauek.

Pasa den larunbateko garaipenaren ondoren ateratako argazki honetan ikus ditzakegu talde honetako partaideak: Iza-ro Lazkano, Itsaso Aranburu, Oihana Aierbe, Amaia Azkarate, Aitziber Beristain, Elizabeth Rodriguez, Alexia Kerejeta, M^a Lourdes Rabanal, Naiara Larrea, Naiara Amaya, Ana Sanchez eta Maider Amaia. Beren entrenatzaileak diren Jokin Agirreurreta eta Gorka Alonsok ere badute ordea, garaipen hauetan zerikusia. Txapelketa amaitzeko gelditzen diren beste hamar partiduetan ere ea gogo eta ilusio berdinarekin ekiten dioten.

3. munduaz erakusketa

Hirugarren munduari buruzko erakusketa ibiltaria kultur etxean izango da azaroaren 15etik 24ra. Eskola orduetan umeek izango dute lehentasuna eta 18:00etatik 20:00etara zabalik izango da nahi duenarentzat.

XX. sagardo txapelketa

Urtero bezala, gaur ospatuko da Domarda kultur elkatean herritarren arteko sagardo txapelketa. Partehartzaile bakoitzak sei sagardo boteila aurkeztu beharko ditu, eta

epaimahaia ere beraiek osatuko dute. Hogeitaz badiara iada txapelketa hau martxan jarri zela.

Iker gure artean

Bi hilabete eta erdi ospitalean egon ondoren iritsi da berriro ere gure artera Iker Altuna. Bere inguruko guztien laguntza ezinbestekoa izan da bizi zuen egoera larriari aurre egiteko. Baina orain hemen da berriro ere gurekin. Ongi etorri Iker!

Elordi Garcia



Alpe

MASTER

Elektragaiak
Sukaldeko altzariak

Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84 BEASAIN



✓ Aholkularitza juridikoa

✓ Entrepresa zerbitzuak

✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel./Faxa: 943 16 21 92

Kale Nagusia, 2 BEASAIN

Eskola Ibiltaria, "gelaz kanpo ikasten jarraitzeko" erre-kurtsoa da, Elkarte Autonomo ezberdinak ikusiaz eta berauen ezaugarri propioak ikasleek ezagutzeko laguntza eskainiaz, Bidetza jakin baten jarraitzearen bidez. Hez-kuntza Ministeritzak Eskola Ibiltarien programetan parte hartzeko deialdiak egiten ditu. Programa honetan partaidetza izateko proiektu bat aurkeztu behar da. Ugari ikastetxeak aurreko ikastaroko esperientzia, Salamankakoa, oso baikorra ikusi zue-nez, oraingoan ere saiatzea pentsatu zuen.

Proiektuak baloratu ondo-ren, Ugari eskolak baiezkioa jaso du eta datorren astean, azaroaren 16tik 22ra, 6. mai-

Ugarokoak Aragoira

lako 10 ikasle, 5. mailako 5 (azken hauek, zozketak hautatuak 15eko kupoa osatu arte) eta beraien gainbegiratzailerik, Kati Urretabizkaia, andereñoa, Zaragozara irten-go dira.

Aste honetan beste bi Komunitate Autonomo, Andaluziakoa eta Kanariakoa izango dira gure ikasleekin elkarbizitza egingo dutenak. Cadizeko San Jose Artesano eta Las Palmaseko Federico Garcia Lorca ikastetxeak, hain zuzen ere. Bakoitzetik 15 ikasle etorriko direlarik.

Bidetzan jasoko dituzten ezagutzen laburpena: Arago-ako industri ingurunea. Autonomia elkarte eta bere antolakuntza. Zaragoza monu-mentala eta artistikoa. Hiria



zerbitzu-zentru bezala eta bere ingurua. Nekazaritza ingurune-aragoarra eta bere bizitza era desberdinak: harana eta Pirinioak, sekaineko eta ureztatutako lurrak. Huescako hiria eta bere ingurunea: Aragoako Antzinako errei-

nuaren jatorria. Ainsa eta Boltaña. Natura guneak eta ingurugiroa: Ordesako parke nazionala eta Monte Perdido. Dehesa del Moncayoko parke naturala. Veruelako monastegi zistertarra. Tarazona.

Eskulan ikastaroa

Udaleko Kultur batzordeak eskulan ikastaroa antolatu du Kultura Fundazioaren laguntzarekin. Bi talde osatuko dira: bata osatiraletan 15:00etatik 17:30era eta bestea 17:30etik 20:00etara. Ikastaroaren iraupena 30 ordukoa izango da eta azaroaren 19an hasiko da Kultur Etxean. Matrikula: 2.000 pezeta. Udal bulegoetan izena ematerakoan ordainduak izan behar dute. Izena emateko epea, gaur, azaroak 12, amaituko da.

Etxegarate bikoizteko lanak hasita

Extegarate bikoizteko lanen hasieraren inguruan zeresana izan da azken egunotan. Lanak hasi gabe zeudela, eta hasiera udaberrira atzeratzea posible zela argitaratu zuen egunkari batek, eta horrek ekarri du soka. Udaletik jakinarazi dute, lanetan geldialdi txiki bat izan dela baina lanak martxan direla. Gipuzkoako Diputazioak orain arte begibistakoak ez diren arren, beharrezkoak diren lanak burutzen aritu direla jakinarazi du. Besteak beste arbolak bota dituzte hainbat lekutan eta Zabarrain baserriaren inguruan pareta bat egiten ari dira. Urak biltzeko hainbat

lan ere burutu dituzte. Hala ere proiektuan hainbat aldaketa egiten ari direla jakin ahal izan da, eta horrek sortu du lan handiagoetan atzerapena. Diputazioaren esanetan, lur mugimendu handiak hasi aurretik guztiak prest egon behar du. Lan handiak berehala hasiko dira.

Gizarte Ongizate Batzordea

Udaletxeko sail honek Udal tasak ordaintzeko zailtasunak dituztenentzat laguntzak eskaini ditu. Egoera ekonomiko txarrean dauden herritarrek eskura ditzakete laguntza hauek. Horretarako epea azaroaren 15ean bukatuko da. Etxez etxeko zerbitzuan lan egin nahi dutenek ere Udaletxera jo dezakete informazioa eskatzera.

Ongizate Batzordeak urteroko moduan Udal aurrekontuaren % 0,7 garapen bidean diren herriei laguntzeko erabiliko dela jakinarazi du. Di-

ru hori lurralde horietan bizi diren idiazabaldarren bidez banatu nahi ditu Udalak. Horretarako eskariak Udaletxean egin daitezke.

Taldeei laguntzak

Udalak herriko kultura eta kirol taldeen aurrekontuak onartu ditu urriko plenoan. Banaketa: Kirol Elkarteak 2.200.000; Herri Eskolako Guraso Elkarteak 1.000.000; Musika Eskola 540.000; Eliza 400.000; Pala Eskola 240.000; Zirika Irratia 300.000; Odol Emaileak 60.000; Korua 60.000; Kabalgata antolatzen duen taldea 50.000; Pelota Eskola 55.000 eta Bolo taldeak 65.000 pezeta.

Urriko plenoan izendatu zuten era berean, Antton Irizar, Idiazabalek Goiekin izango duen ordezkari.

Xabier Urteaga

Mikel Telleriaren diskoa

Mikel Telleria herritarrek 'Deklarazioa' izeneko diska grabatu berri du. Idiazabaldarren lehendabiziko lana Durangoko azokan egongo da salgai. Telleriak Zirika Irratian aurkeztuko du bere lan berria larunbat honetan, azaroak 13 (hurrengo alean izango duzue xehetasun gehiago).



Udazkeneko egun hotzekin eta mondeju sasoiarekin batean, badatozela San Martinak

Auzoko jaiei hasiera ofiziala San Martin egunarekin eman badiegu ere, joan den asteburitik jada hasia zen giroa berotzen. Oargi Troskaeta K.E. berriro martxan jarri izana ospatu nahi izan zuten bertako kideek joan den larunbatean. Horrela, eguerdiko inaugurazio ekitaldiaren ondorenerako bazkaria antolatu zuten. Bertaratu zirenek bazkariaren oparotasunaz gain, jendearen partaidetza eta giro ederra zuten aipagai. Arratsalderako bideo emanaldia prestatu zuten: "Escola garaia: 1985-86 ikasturtea Joxemiel Barandiaran eskolan". Batek baino gehiagok egin zuen bai parrerik bere burua duela 15 urte zuen itxurarekin ikustean. Gauean Ataungo Banda Popularrak kontzertua eman

zuen Oargin, egunari bukara bikaina emanez.

Marrazki eta idazlan lehiaketak

Gaztetxoagoek berriz, urtero bezala Haurkideek antolatutako marrazki eta idazketa lehiaketan parte hartzeko aukera izan zuten. Arduradunen esanetan, adin desberdinetako haur ugari hurbildu omen zen eskolara beren trebetasun kreatzailea erakustera.

Bach musikaldia

Igandean berriz, organozale eta musikazaleek aukera ederra izan zuten elizako organo barrokoaren doinuekin belarria goxatzeko. Urtero bezala,

"Bach musikaldia"-ren egitarauaren barne antolatutako ekitaldia izan zen joan den igandekoa, aurtengoa Loreto Fernandez Imaz donostiarraren eskutik. Bertan izan ziren besteak beste, Luis Maria Bandres, Foru Aldundia-
ren izenean eta organo honen bultzatzaile handienetarikoa izan den Esteban Elizondo organojole ezaguna. Aipagarria da, aurtun XXX. Edizioa betetzen duen musikaldi honen emanaldiak, Gipuzkoako hiru herritan bakarrik izaten direla, Donostian, Ordizian eta Ataunen. Izan ere, 1760. urtean Lorenzo de Arrazola oñatiarrari enkarguz, 12.000 errealekin trukean egiteko eskatu zi-

tzaion organo hau organo barrokorik hobereenetarikoa omen da. Hala eritzi zion Elizondo maisuarekin etorri zen japoniar talde batek bederen. Horra, bada, herrian dugun altxorraren garrantzia.

Baina joanak joan, 10. orrian duzue hurrengo egunek dakarkigutena. Atal honi amaiera Mikelats Jentilaren hitzokien emango diot gaurkoan:

Festara gatoz, festa jartzera, utziz mendi tontor-gainak, eta gurekin batera datoz aztiak eta sorginak. Mondeju beltzak jango ditugu Ataunen bertan eginak, aker saldarik onena baino hobe dira San Martinak. Ondo pasa jaiak, beraz.

Agurtzane Bikuña



I. Pilota txapelketako finalak San Martin azokan

San Martin egunean jokatu-ko den I. Pilota txapelketako finalistak nortzuk izango diren badakigu. Eskuz jokatu-ko dute bikoteek. Arratsalde-

ko 6etan jokatu-ko dira partid-
duak, Pilotalekuan.

● **Alebinak:** Denis Perez-Unai Agirre Estebez Ariznabarreta-Arkaitz Ariz-

nabarretaren aurka.

● **Infantilak:** Eneko Iraola-Iker Azurmendi Ruben Zabaleta-Oier Arkonadaren aurka.

● **Kadeteak:** Aritz Irastorza-Xabier Agirre Jon Arakama-Joseba Gorrotxategi-
ren aurka.

● **Helduak:** Juan Zabaleta-Jesus Zabaleta, Asier Berasategi-Iker Gorrotxategi-
ren aurka.

Edurne Albizu

Herritarren arteko aizkora apustua

Pilota partid-
duak amaitu ondoren, herritarren arteko aizkora apustua izango da, pilotalekuan bertan. Iaz ere egin zuten apustua, aizkora eta trontzan. Aurtun, aizkora bakarrik jardungo dute Joxe M. eta Esteban Arakama anaiak, Inazio Katarain eta Joxe M. Esnaolaren aurka.

JOAKIN ZUBELDIA
PINTURA-LANAK



943 18 02 46 ATAUN

ARRIETA

*Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

JATETXEA

943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

Zaldibiko Kultur Etxeak antolaturik ekintzaz beteriko azaroaz gozatzeko aukera izango dugu herrian. Dakienez Santa Fe jaietako argazki erakusketa ikusgai egongo da igande honartean, baina ez da hau gure artean dagoen ekintza bakarra. Pasa den asteazkenean hasi eta ekainaren 21era bitarte margoketa ikastaroa izango da Patxi Epelderen eskutik. Ikastaroa antzokian burutuko da asteazkenean arratsaldeko zazpietatik bederatzietara.

Haurrentzako ekintzak

Igande honetan, eta aspal-



dian alde batera utzitako denborapasa berreskuratzuz, haurrentzako bideo emanaldiak eskainiko dira Kultur Etxean. Emanaldi hauek

igandero burutuko dira arratsaldeko 4:30etan eta sarrera 100 pezeta kostatuko da. Era berean, eta haurrei zuzenduriko ekintzekin jarraituz,

azaroaren 18an Arrate Leunda ipuin kontalariaren saioa izango da arratsaldeko 6:30etan Kultur Etxean.

'Dama eta kardinala' antzezlan

Azkenik, eta hilabete honetako ikuskizun nagusienari bide emanez, "Dama eta Kardinala" antzerki saioa eskainiko da datorren ostiralean Zaldibiko antzokian. Euskal artista ospetsuek buruturiko obra hau gaueko 10:15etan hasiko da eta sarrera 300 pezeta kostatuko da.

Sarai Jauregi
Iñaki Gurrutxaga

Mendi irteera: Arantzazutik Altsasura



Zaldibiako Gailurrerantz Kirol Elkarteko mendi sailak antolaturik mendi irteera berri bat ospatuko da asteburu honetan. Bihar goizeko zortziretan abiatuko da autobusa plazatik Arantzazura bidean, eta handik San Adriango aterperaino joango dira. Bertan afaldu eta gaztaina erre batzuk jan eta su ondoan tertulian aritu ondoren erretiratu dira. Igande goizean esnatu, eta San Adriango aterpetik Altsasun bukatuko dute txangoa mendizaleek.

Mendi irteerako antolatzaileek lerro hauek aprobetxatu nahi dituzte ohar pare bat botatzeko; batetik, norberak eraman beharko dituela lo egiteko zakua eta larunbata eta igandeko bazkariak, eta bestetik, gure mendiek udazkenean eskaintzen duten giro atsegin eta paregabeaz gozatzera gonbidatu nahi zaituzte. Beraz, eutsi animo horiei!



IBAI-ONDO

Altzariak neurria
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa
Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea
ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43
Antzizar Auzoa, z/g BEASAIN



ITSASOKO OSTATUA

- ✓ Etxeko sukaldaritza.
- ✓ Eguneroko menua 800 pta.
- ✓ Udaberrian terraza zerbitzua

Aldez aurretik erreserba egiteko:
☎ 943 88 03 15

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

☎ 943 18 72 57



Gipuzkoako ezpatadantzen bilduma Usurbe Antzokian

Euskal dantzen jaialdia ospatuko da larunbatean, azaroaren 13an. Bertan, Gipuzkoako ezpatadantza garrantzitsuenak aurkeztuko dizkigute, Debako Gure Kai, Legazpiko Sustraia, Zumarragako Irrintzi eta Beasaingo Aurtzaka taldeek. Ekitaldi berezi honetan, Beasaingo Loinazko San Martin Ezpatadantza emango dute ezagutzera, eta gaur egun Gipuzkoan bizirik ezagutzen diren beste ezpatadantza guztiak ikusteko aukera ere izango da. Lehenengo aldia dela honelako lan bat aurkezten dutela. Usurbe Antzokian izango da zita arratsaldeko 6.30etan.

Golden Apple Quartet

'Radio Golden' erdarazko antzerki ikuskizun musikala aurkeztuko du gaur, azaroaren 13an, gaueko 11etan Usurbe Antzokian. Sarrera 850 pezeta izango da.

'Beasaingo Baserriak' liburuxkaren banaketa

Asteazkenean aurkeztu zen Josetxo Zufiaurren 'Beasaingo Baserriak' liburuxka. Argitarapen honen banaketa azaroaren 15etik 19ra egingo da Ezkiaga Auzo Etxean (Oriako Pasealekua 12an),

17:30etik 19:00rak arte. Ale bat jaso nahi duzuen guztiok, azaroko Laisterraren barruan dagoen fitxa bete eta 500 pezeta ordainduz eskuratuko duzue.

Ezkiaga Auzo Etxearen VI. urteurrena

Ezkiaga Auzo Etxeak sei urte beteko ditu azaroaren 20an. Ospakizun hori dela eta, bertakoek jai-giroko egun bat ospatu nahi dute eta azaroaren 19rako antolatu dute jaiak. Arratsalde guztian zehar, joko ezberdinak izango dira eta ondoren txokolate jana egingo dute. 5-14 urte bitarteko haurrentzat antolatu da jaiak. Sei urte hauetan Auzo Etxeak, ludoteka, liburategia eta haur eta helduentzako tailerrak izan ditu. Auzokideen harrera ona izan da.

Santa Zezilia eguna

Musikarien patroia ez du ahaztuko Musika Eskolak. Azaroaren 19 eta 20an eskainiko dituzten kontzertu eta emanaldi desberdinekin ospatuko du Santa Zezilia eguna.

Azaroaren 19an, ikasleek kontzertua emango dute musika tresna desberdinak erabiliz. Udaletxeko Batzar

Gazte Asanbladaren 6. urteurreneko ospakizunak

Gazte Asanbladak 6. urte betetzen dituela eta, azaroaren 12 eta 13an, ekitaldi ugari antolatu dira Antzizar Kiroldegian.



Azaroak 12, ostirala:

19:00etan: Manifestazioa Zubimuzutik abiatuta, 'Atsedénik ez gatzetxerik gabe' lemapean.

20:00etan: Laburmetraia Kiroldegian.

21:00etan: 'Arraultza delikatua' antzezlan Kiroldegian.

22:00etan: Afaria Kiroldegian.

22:45ean: Kontzertua: Eternal Rebirth, Apocalyptic eta Sindicato del crimen taldeekin. Sarrerak 500 pezetan.

Azaroak 13, larunbata:

12:30ean: Tirki-poteoa Kiroldegitik abiatuta.

14:30ean: Bazkari herrikoia Kiroldegian.

16:30ean: Mahai jokoak Kiroldegian.

19:00etan: Zinema animatua Kiroldegian.

21:00etan: Afaria Kiroldegian.

22:30ean: Kontzertua: Lisabo, Soberano eta Notfortise. Sarrerak 500 pezetan.

Aretoan 19:30ean. Egun berean, Aitor Mitxelenaren zuzendaritzapean, Beasaingo bandak kalejira egingo du herriko kaleetan zehar, 20:00etatik aurrera. **20an**, Musika Eskolako abesbatzak eta orkestrak, kontzertu bateratua eskainiko dute Andra Maria Zeruratuaren parrokiaren 20:00etan.

Beasain Interneten

Beasaingo herriak web orria sortu du Interneten. Hemen-dik aurrera beraz, orri horretan sartuz gero informazio hau topatuko dugu:

- **Beasaini buruzko datuak:** kokalekua, biztanleria,

historia, garraioa eta planoak.

- **Agenda:** ekintzak, lehiaketak, laguntza publikoak, telefono eta helbide elektroniko interesgarriak.

- **On line atala:** Erabiltzaileari eskaintzen zaion zerbitzu atala. Batez ere ke-xu eta iradokizunak eta erabiltzaileak gehitu nahi lukeen informazioak osatuko luke.

- **Udala izeneko atala:** udal-antolakuntza, proiektuak, lehiaketak, batzarren aktak eta aurrekontuak lor daitezke besteak beste.

Nekane Altuna

Iñautsi
HORTZ KLINIKA
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 ZIKI, KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

BERRIZ ARANBURU
ERROPADENDA

Ikastaroak

Urriaren amaieran udalaren iniziatibaz burutu zen bilerara 20ren bat herritar azaldu ziren. Interes ezberdinen artean, euskara ikastaroak herrian antolatzearen nahia izan zen aipagarriena. Euskalduntzeko lgo urratseko eta alfabetatzeko talde bana sor daitezke eta jarriak dira antolaketa lanean. Euskaraz gain, sukaldaritza, pintura eta eskulanetarako eta abarretarako interesa ere azaldu zen. Guztiak tratatu eta landuko dira. Informazio gehiago udaletxean.

Santa Zezilia

Musikari eta abeslarien eguna azaroaren 22an bada ere, **Musika Eskolakoak** 18an dute euren eguna ospatzeko asmoa, arratsaldeko 5etan Aterpetxean bertako ikasleek herriarrei eskainiko dieten kontzertuarekin. **Elizako korukoek**, azaroaren 21ean 12:00etan Pedro Bilbaoren meza abestuko dute. **Kriseilu txistulari taldekoek** kalejira egingo dute meza ondorenean. Jarraian, urteroko bazkaria izango da.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Preferentea: Segura 3-1 Aretxabaleta. **Jubenilak:** Pasajes 2-3 Segura. **Kadeteak:** Aizkorri 0-2 Euskalduna. **Infantilak:** Aizkorri 8-0 Aretxabaleta.

Asteburuan etxean: Juvenilak: Segura-Lehengokoa, zapatuan, 16:00etan. **Infantilak:** Aizkorri-Mutriku, jaien, 11:00etan. **Kadeteak:** Aizkorri-Idiazabal, jaien, 16:00etan.

Nikaraguan ezinduekin

Uztailean joanda, 3 hilabete pasa dituzte Aitziber Etxeberria herritarra eta Lezoko Amaia Bergarak Nikaraguako iparraldean dagoen Matagalpa herrian, ume ezinduei eta hauen gurasoei lagunduz. Magisteritzako heziketa bereziko ikasketak bukatuta, Arrasateko lagun bati esker, aspalditik zuten nahietako bat gauzatu dute: euren ikasketak benetako beharra dutenekin praktikan jartzea 3. munduan. Ikasketa eta autolaguntza tailerrak antolatu dituzte, auzoka eta taldeka, ezindu fisiko nahiz psikikoen guraso elkarteentzat.



Aitziber, 2tik 14 urtera bitarteko tailer bateko gurasoen umeein aurtengo udan Nikaraguan.

Diapositiba emanaldiak

Nikaraguan bizi izan duten esperientzia 160 diapositiba komentatuen bidez azaltzen saiatuko da Aitziber, azaroaren 19an, 22:00etan eta 20an, 15:00etan kultur etxean.

Labur-labur

● Zegaman erre zen Asemendi baserriaren aldeko etxez-etxeke diru bilketan **500000 pezeta inguru** jaso dituzte Seguran.

● **Dantza ikastaroak.** Eskolorduz kanpo eta Laiotzeko ikasleentzat ikasturte guztia iraungo duten euskal dantzak atzo hasi ziren. 3 taldetan banatuta, 5etik 11 urtera bitarteko 34 neska-mutiko ari dira ostegun eta ostiral arratsaldeetan astean ordubetez, Eider Garmendia irakaslearekin.

● Azaroaren 13ko Gipuzkoako **jubilatuaren egunerako autobusa** goizeko 10:30etan aterako da plazatik. Segurari zegozkion 20 plazak bete dira Anoeta kiroldegiko bazkari-rako.

● **Kirol eskolarra.** Mendi irteera azaroaren 14an, goizeko 8,30etan plazatik irtenda, Zumarragako Samiñora (932 m.) joango dira. 17 neska-mutiko dira mendi irteeretarako izena eman dutenak.

● **Herriko odol-emaileen eguna.** Azaroaren 20an, iluntzeko 7etan meza parrokan

hildako odol-emaileen alde. 9etan afaria Zopajale Elkartean (arrain zopa, baserriko oilaskoa eta arroznea). 2000 pezeta kostako da.

● **Industrialdea martxan.** Kendu goeneko lurretan gune industrial egiteko lehen pausoak emanak ditu udaleko garapen ekonomikoko batzordeak, sozietate anonimoa sortze bidean jarritz.

● **Ardixarrenerako laguntza.** Jaurilaritzatik jaso den laguntza dela eta, udalak etxearen zorua, eskaierak, ur eta argi instalazioa jartzeari ekin dio.

● **Ongi etorria.** Espainiako kartzela ezberdinetan 13 urte pasa dituen eta askatu berria den Jokin Aldanondori azaroaren 26an Seguran.

● **Elorriren inaugurazioa** eta Jokin Aldanondoren ongi etorriko afaria azaroaren 26an izango da Elorri Elkartean. Txartelak Elorripen eskuratu behar dira azaroaren 24erako.

● **San Andres eguna** azaroaren 28an ospatuko da aurtengoan.

Joseba Tellaria

Alustiza eta Imaz bikain



Belokiri 22 eta 12 irabazita, Asegarcen enpresako lau eta erdiko hurrengo kanporaketara pasa zen Martin Alustiza pasa den igandean Lodosan. Hurrengo partidua, bihar, azaroak 13, Bergaran izango du Errastiren kontra. Xabier Imazek Berasaluze VIII.a kanporatu ondoren, ezin izan zuen beste hainbeste egin Errandonearekin, 22 eta 11 galdu zuelarik pasa den astelehenean Tolosan.



Mendi astea

1999. urteko kultur astea amaitu berria dugun honetan, mendiko asteari hasiera ematear aurkitzen gara. Aurtengo mendi astea azaroaren 15etik 21era bitartean ospatuko da.

Azaroak 15: Joxe Ramon Agirre 'Marron'-en 'Bidaia neure barrenean zehar. Nepal', 19:30ean Kultur etxean.

Azaroak 16: Juanito Oiarzabal: '14 zortzimilakok', Euskadiko Kutxaren laguntzaz, kiroldegian, 20:00etan.

Azaroak 17: Andoni



Areizaga: 'Antton eta Gaizka bide berria Patagoniako dorreetan', Kultur Etxean, 19:30ean.

Azaroak 18: Javier Fer-

Ander Deunaren jaiak

Azaroak 20, larunbata: 12:00etan: Lagun taldeen bilkura eleganteen eguna ospatzeko. 14:30ean: Gazteek antolatutako bazkaria herriko enparantzan. 18:00etatik 21:00etara: Maider eta Xabi trikitilarien kalejira. 23:00etatik 02:00etara: Kristina eta Amaia triki-taldea.

Azaroak 21, igandea: 11:00etan: VI. Artisau erakusketa herriko enparantzan. 11:30ean: Tolosako Udal txistulari bandaren kontzertua Ander Deunaren elizan. 12:00etan: Meza Nagusia. 18:00etan: Goruntz dantza taldearen saioa Zubipe kiroldegian. 19:15ean: Binakako eskuzko pilota jaialdia Zubipe kiroldegian.

nandez: 'Ordesako xarma', Kultur aretoan, 19:30ean.

Azaroak 19: Juanjo San Sebastian: 'Flor de Lotora eskalada', 19:30ean, Kiroldegian.

Azaroak 20: Eskalada saioa Zubipe kiroldegian,

goizeko 10etatik aurrera.

Azaroak 21: Ormaiztegi-Ormaiztegi mendi ibilaldia, goizeko 8,30etan. Gaztaina jatea 18:00etan. Jarraian, Mendi sailaren filminak.

Aitziber Murua



Ehiza garaia pasata

Urria izan ohi da gure inguruotan ehiztarien artean zeresan handiena sortzen duen urte sasoi, lepoa luza-luza eginda gora begira, zer ikusiko. Azken batean aurtengoak ere balio izango zuen, elka-

rrekin une atseginak eta modu goxoak egiteko eta ez da gutxi. Hartzen direnak ikusita ez dago kuidadorik; datorren urtean ere uso banda galantak ikusteko gaude.

Santu Guztien eguna

Egun seinalatua da azaroaren 1a, orduantxe gogoratzen baititugu gure artetik joan zirenak. Gure inguruotan oso sustraiturik dagoen ohitura da egun horretan loreak kanposantuetara eramatea eta gure herrian ere horrelaxe izan zen. Bertan nahiz kanpoan bizi diren herritar ugari hurbildu zen, aurretik joandakoez oroiturik.

Telleriatarren bilkura

Telleria abizena dutenen bilkura ospatu zen azaroaren 7an Liernin. Meza eta bazkariaren ondoren, bi adinekoei omenaldia eskaini zieten, Getxoko Marina Telleria Altxerrekari, 83 urtekoa, eta Arrasateko J.Luis Telleria Bazterretxeari, 87 urtekoa. Zorionak!

Inaki Ugalde




MUJKA



BEASAIN ☎ 943 88 74 00

URBITARTE

sagardotegia



- Txotxetik irekita
- Eguerdi eta gauetan irekita
- Eguerdietan hobe aurrez deitzea

Erreserba telefonoa:
943 18 01 19

Ergoiena Auzoa ATAUN



MUJKA

LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

press to

Kalitatezko tindategi
azkarra



☎ 943 16 31 27

Joan Iturralde, 11
BEASAIN

Kalitate goreneko zerbitzua

- Ante, napa eta larrua.
- Larrugintza gorena
- Alfonbrak
- Manta, edredoi eta ohe-estalkiak
- Sofa zorroak eta gortinak/estoreak
- Traje eta soineko bereziak
- Ezkongaien traje eta soinekoak
- Barbour-aren garbiketa eta koipeztatzea

Azaroko eskaintza

- %20ko beherapena larruetan
- Alfonbrak: 790 pta/m



Tel.: 943 88 58 29

OLABERRIAKO KASKOAN

50 lagunentzako jangela:

- Karta zerbitzua
- Enpresa menuak
- Astebukaerako menuak

80-100 lagunentzako sagardotegia:

- Babarrun jatea (babarruna + baserriko oilaskoa)
- Sagardotegiko menua, sagardoa kupeletatik dastatuz
- Talde handientzako menu berezia

9 logela:

Bainu gela, ile lehorgailua,
TV, Canal +, Via digital,
bista zoragarriak

ZINEA

GOIENIZ:

Azaroak 18, 'Mis vacaciones' laburmetraia eta 'Limpieza en seco', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

BEASAIN:

'Una terapia peligrosa'.
Larunbata 13: 22:15
Igandea 14: 16:45 - 19:30 - 22:15
Astelehena 15: 19:30 - 22:15.

LEGORRETA:

Azaroak 18, 'Gattaca un experimento genetico' 20:30ean, Herri Zineman.

Azaroak 25, 'Medianoche en el jardin del bien del mal' 20:30ean, Herri Zineman.

ORDIZIA:

'Eyes wide shut'.
Ostirala 12: 22:15
Larunbata 13: 19:00, 22:15
Igandea 14: 19:00, 22:15
Astelehena 15: 19:30

'Mi marciano favorito'.
Igandea 31: 16:45.

'Limpieza en seco'

Anne Fontaine
(Esp.- Fran., 1997)

Nicole eta Jean Marie osatutako bikotea arrunta eta tradizionala da, aspergarria apika, erropa garbiketa dute lanbide. Gau batean diskotekan dabil-tzala Loïc ezagutuko dute, eta haren bidez aurkituko dute hama-bost ezkon-urtetan probatu gabeko desio eta grina gordeak gartzeko aukera.

Anne Fontaine zuzendari frantsesaren laugarren filmak, Espainian aurkeztutako lehenengoak, badu xarma eta erakarpere berezia; izan ere, metafora ulergarri eta eraginkorrak erabiliz, eta pertsonaiak sendotasunez gidatuz, amodiozko hirukotearen inguruko istorio sakon eta mamitsua eratzeko gai izan da.

musika

ARAMA:

Azaroak 12, 23:00etan, Amaia eta Kristinarekin gaur-pasa.

Azaroak 13, Alaitz eta Maider, 23:00etan.

ATAUN:

Azaroak 12, Spirium Na-crem eta Naftena, kalustran, 22:30ean.

BEASAIN:

Azaroak 12, 'Golden Apple Quartet' taldearen 'Radio Golden' erdarazko antzerki-ikuskizun musikala, Usurbe Antzokian, 23:00etan. Sarre-rak: 850 pezeta.

Azaroak 14, Ertzaintzaren musika-bandaren kontzertua, Loinazko San Martin plazan, 12:30ean.

Azaroak 14, Incansables txarangaren kontzertua, Gernika pasealekuan, 19:00etan.

ORDIZIA:

Azaroak 12, Bach musikalkia: Il Giardino Armónico. Eliza nagusian, 20:00etan.

Azaroak 20, Mendeburua kantuz, Majori Kiroldagian, 22:00etan: Beñat Achiary, Aire ahizpak, Jean Michel Bedaxagar, Andde Duhalde, Eñaut Etxamendi, Mikel Markez, Gontzal Mendibil,

Maddi Oihenart, Patxi Saiz, Tapia eta Leturia, eta Amaia Zubiria.

Azaroak 21, Umore Ona eta Santa Ana Txiki abesbatzen kontzertua, Elizan, 20:00etan.

ZEGAMA:

Azaroak 13, Naftena, Spuri-um Nakrem eta Unholdy, 24:00etan.

bertsoak

ATAUN:

Azaroak 12, bertso jaialdia Auzoeta kiroldagian, 22:30ean: A. Egaña, J. Agirre, M. Lujanbio, J. Munduate, S. Lizaso, A.M. Peñagari-kano, Haiz Aierbe, Oier Zurutzu, Iban Urdangarin eta Aitzol Munduate.

hitzaldiak

ORMAIZTEGI:

Azaroak 12, Jubilatuen-tzako hitzaldia: memoria ezagutzea eta bultzatzea, Mercedes Acedaren eskutik, Kultur Etxean, 17:30ean.

Azaroak 12, Sendabela-rrak, dietetika eta elikadurari buruzko hitzaldia, Zorion In-saustiren eskutik, Kultur Etxean, 19:00etan.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Atorrasagasti
(Bustuntza -Ordizia). 943 88 29 34.

Azaroak 13-14: Arriola
(Plaza Nagusia - Ordizia). 943 88 06 28.

Azaroak 20-21: Cuesta
(Nafarroa Etorbidea, 39 - Beasain) 943 88 05 87.

KEMEN KIROLAK



IKASTEK AKADEMIA - AKADEMIA INTEGRALA

HEZKUNTZAKO PROFESIONALAK GOIERRITARREN ZERBITZUAN

Eskola laguntza:

- ✓ Maila eta arlo guztiak
- ✓ Lehen Hezkuntza (6urtetik)
- ✓ DBH, DBHO
- ✓ Ziklo formatiboak

Unibertsitate maila:

- ✓ Enpresaritza
- ✓ Ingeniaritza
- ✓ Kmika
- ✓ ...

Kontabilitatea:

- ✓ Eskuz, ordenagailuz
- ✓ Contaplus
- ✓ Nominaplus
- ✓ Facturaplus

943 160 120

Joan Iturralde, 5

BEASAIN



Antton Mendizabalen 'Gure sustraiaetan'

Antton Mendizabal eskulturgileak 'Gure sustraiaetan' erakusketa erakusgai dauka Ordiziako Barrena jauregian, azaroaren 21a bitartean. Pilota jokoaren eta argizaiolen inguruneak proposatzen ditu Mendizabalek. "Baina argi! hau proposamen bat besterik ez da eta... Nik, gai hauek

adierazteko era berezi batzuk aurkezten dizkizut. Ondoren, ikusleak, zuk, lan hauek zure modura ikusi ahal izango dituzu, zure interpretazioz, esperientziak eta sentsibilitatez aberastuko", dio eskulturgileak.

dantzak

BEASAIN:

Azaroak 13, Euskal dantzen jaialdia: Gipuzkoako ez-patadantza garrantzitsuenak, Usurbe Antzokian, 18:30ean.

ORMAIZTEGI:

Azaroak 14, Dantzari Txiki eguneko jaialdia, 17:00etan.

bestelakoak

ATAUN:

Azaroak 13, Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazoak, Auzoeta udal kiroldegian, 17:00etan.

ORDIZIA:

Azaroak 17, Ipuin-kontaketa Arrate Leundaren eskutik, Barrenan, 17:30ean.

Azaroak 25, Ipuin-kontaketa Arrate Leundaren eskutik, Barrenan, 17:30ean.

antzerkia

ATAUN:

Azaroak 14, Jentilen etorrera, 18:15ean, San Martinen.

ZEGAMA:

Azaroak 14, Ordiziako Urrup antzerki taldea, Zegaman, 18:00etan, Zinean.

erakusketak

BEASAIN:

Azaroaren 14ra bitartean, VIII. Aire Zabaleko pintura-lehiaketara aurkeztutako lanak erakusketa, Usurbe Antzokian.

Azaroaren 26ra bitartean, J. L. Longaronen pintura erakusketa, Aterpe tabernan.

Azaroaren 19tik 28ra arte, Euskal Herriko zuhaitz eta zuhaixken herbarioa erakusketa, Usurbe Antzokian.

Azaroan, 'Bi arteak batean: abeslariak-margolariak' erakusketa, Zinema tabernan.

Mendi astea Ormaiztegin

Azaroak 15, Jose Ramon Agirre 'Marron': 'Bidaia neure barrenean zehar. Nepal'. Kultur Etxean, 19:30ean.

Azaroak 16, Juanito Oizartabal: '14 zortzimilakoak'. Zubipe kiroldegian, 20:00etan.

Azaroak 17, Andoni Areizaga: 'Antton eta Gaizka bide berria Patagoniako dorreetan'. Kultur Etxean, 19:30ean.

Azaroak 18, Javier Fernandez: 'Ordesako xarma'. Kultur Etxean, 19:30ean.

Azaroak 19, Juanjo San Sebastian: 'Flor de Litora eskalada'. Zubipe kiroldegian, 19:30ean.

Kotoizko arropetan marrazkiak margotzeko ikastaroa Lazkao

Azaroaren 22tik 25era bitartean izango da kotoizko arropetan marrazkiak margotzeko ikastaroa, Lazkaoako Gerriko Txokoan, Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartek antolatutako. Arratseko 7etatik 8etara izango da ikastaroa, 500 pezetaren truke. Bertan parte hartzeko izen ematea, azaroaren 20a baino lehen egin behar da, Gerriko Liburudendan. Telefonoa: 943886500. Oharra: ikastarora kotoizko arropa bat eta ixipu mehe bana eraman behar dira.

URRIAN SALDUENAK

LIBURUAK:

- 1- Euri kontuak**
JL Otamendi (Susa)
- 2- Hezur gabeko hilak**
Xabier Montoia (Susa)
- 3- EHko mendien katalogoa**
Txillardegi (Elkar)
- 4- Lisboako setioaren historia**
Jon Alonso (Ibaizabal)
- 5- Bai... baina ez**
Laura Mintegi (Elkar)

DISKOAK:

- 1- Berri txarrak**
'Ikasten' (Gor)
- 2- Pi LT**
'3-hiru' (Esan ozenki)
- 3- Imuntzo eta Beloki**
'Lousianara noa' (Elkar)
- 4- Skunk**
'Enbata' (Esan ozenki)
- 5- Jabier Muguruza**
'Fiordoan' (Esan ozenki)

Baga-Biga Kulturgaiak emandako zerrenda

LAZKAO:

Azaroan, 'Euskal pilota jokua', Kultur Etxean.

ORDIZIA:

Azaroaren 21era arte, Antton Mendizabal eskulturgilearen 'Gure Sustraiaetan' erakusketa, Barrenan.

ZEGAMA:

Azaroaren 13ra arte, saskigintzari buruzko erakusketa, Kultur Etxean.

mendi-irteerak

Beasaingo mendizaleak:

Azaroak 14, Toloñora.

Azaroak 21, Anbotora.

Ordiziako mendizaleak:

Azaroak 14, Lizarrusti-Ormazarreta-Arbizu.

Azaroak 21, Ganbo.

Ibilgailuak

saldu

➔ Opel Corsa GSI-a salgai, 92. urtekoa (beltza). Egoera onean, prezio eztabaidagarria. 943881802.

➔ Kroseko KTM motorra salgai. 250 cm^3 96.koa. 450.000. 629482749. Xabier.

➔ Kroseko motorra salgai: Husqvarna CR 250. 96. urtekoa. 943800487. Ibon.

➔ Kawasaki GPZ 400 motorra salgai. Egoera onean. 943731872 - 943731282.

➔ Opel Tigra salgai. Horia. Extrak. 40.000 km. 96. urteoa. 943886709. Gaez deitu.

➔ 'Comanche florida' kanpin gurdia salgai. 5 plazarakoa. Egoera onean. Aukerako prezioa. 943187372

➔ Volkswagen Golf GTI 16 V, salgai. Extrekin. SS-AD. Asier. 943800384. Gaez deitu.

➔ Trialeko motorra salgai. Gas-gas 350. 95. urtekoa. 943 801418 Urtzi.

Etxebizitzak

saldu

➔ Etxebizitza salgai Ikaztegiatan. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, terraza eta berogailua. 943652692.

➔ Etxebizitza salgai Beasainen, erdigunean. Berritua eta mobleztatua. 2 logela, egongela, bainua eta sukaldea. 40 m^2 ko lur sailarekin. 943888441.

➔ Pisua salgai Beasainen. Dena kanpo aldera, oso eguzkitsua. Ganbara ere badauka. 943888318. Deitu 13:30etik 16:00etara eta 20:30etik aurrera.

➔ Etxebizitza salgai Lazkaon, 3 logela, sukalde-egongela, 2 terraza, ganbara eta bainuarekin. 943161357.

Animaliak

saldu

➔ Seter ingeles txakurkumeak salgai. Desparasituak eta txertatuak. Pedegree onekoak. 943216684 - 670873227.

➔ Euskal ponnyak salgai. 943160919.

➔ Euskal artzai txakurkumeak salgai. 943801467 - 617213340. Txema Lardizabal.

➔ 2 txakurkume, 'Blanco del Pirineo' arrazakoak, salgai. 943180484. Pili.

➔ Eskusoinua salgai. Pianoduna, 80 bajurekin. 943273433. Mikel.

➔ Pigni akordeoi botoiduna (ia berria) salgai. 943465724.

Denetarik

➔ Gabirian asto-festa herriko bat antolatzen ari dena. Laguntzeko prest daudenek deitu 943887186 telefonora.

➔ Eskusoinuak konpon-tzen dira, marka eta modelo guztiak. 943470001. 17:00etatik 19:00etara deitu, ostegunetan izan ezik.

Bestelakoak

saldu

➔ Esne tankea salgai: Manus CRFM. 250 litrokoa. Oso egoera onean. Artzaintzat egokia. 94680900 (mezua utzi). Iñaki.

Lana

eskaintza

➔ Kamarera bat behar da. 943162523.

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elsegia, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

ILEAPAINDEGI MISTOA

- ✓ Solarium 4.500 pta. 10 saioko bonoa
- ✓ Depilazioa
- ✓ Kolore eta permanenteak, astelehen, astearte eta asteazkenetan %5eko deskontuaz

Rekartealde, 30 ☎ 943 88 34 86 BEASAIN

SAN BENITO IKASTOLA LAZKAKO

Haurtzaindegia-ludoteka

Zabalik urte osoan zehar:

- ✕ Haurtzaindegia: 7:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 7:30etik 14:30era.
- ✕ Jantokia: 7:00etatik 9:00etara eta 12:00etatik 14:30era (haur eskolarizatuak)
- ✕ Haurtzaindegia-Ludoteka: 16:30etik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
- ✕ Karguroak: Ostiral eta larunbatetan 20:00etatik aurrera.

☎ 943 88 08 00 - 626 91 80 76 ☎

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

Joxe Mujika

85 urteko aramarra

"Morkotxaren barruan ondo kontserbatzen zen gaztaina"



Araman San Martin egun bezperan, azaroaren 10ean, egiten den gaztaina erre jana betidanik ezagutu izan du Joxe Mujikak. 85 urte ditu aramarrak, 86 urtarrilean. Ohitura noiztik datozen ez daki, baina Joxe mutiko zela izaten zen gaztaina jana. Udaletxe eta eskola zaharretan, gaztaina txertakaz egindako mahai eta bankuak izaten ziren eta garrafoi bat ardo jartzen zuten San Martinetarako, 20 litrokoa, herritarrentzat. "17-18 familia izango ginen Araman. Herrian elkartasun handia zegoen, orain baino giro gozoagoa zegoen", dio Joxek. Ardoari lagun egiteko, danbolinkada bat gaztain erretzen zuten. Pare bat urtean, gaztainarik izan ez zela eta, gailetak banatu omen zituzten, gaztainen ordez. Jan eta edanaren ondoren, musaldia egin eta 10etarako etxeratzen ziren.

Udaletxe eta eskola berriak egin zituztenean, gaz-

tainen kontu hori utzita gelditu zen Joxek gogoratzen duenez. Gerora gaztain erren ohiturarekin jarraitzeko, plazan, bizpahiru danbolinkada erretzen hasi ziren. Baina kanpotik jende asko etortzen zela eta, Ordiziako hainbat okindegieta labeetan erretzen hasi ziren, gaztaina guztiak danbolinetan erretzea ezinezkoa baitzen. Ardoaren partez, sagardoa banatzen hasi zen geroago, ohitura zaharragoa zelakoan. "Sagardo gozoa edaten zen lehen sagardoarekin, muztioa". Arrakasta handia du gaur egun Aramako gaztaina janak eta kanpotik jende asko gerturatzen da.

Gaztaina asko

Joxeren gazte denboran gaztaina asko zen inguruan. Gaur egungo pinudien ordez, gaztainadiak omen zeuden. Etxerako eta Ordiziako perian saltzeko adina izaten zen. Negurako jakia izaten zuten. Urteren batean edo bestean gaztainarik izan ez bazen ere, ia urtero gaztaina

asko izaten omen zen inguruan, Ordiziako azokalekuan kabituz ezinik. Mando eta gurdietan eramaten zituzten gaztainak Ordiziara; kamioiean geroxeago. "Donostiatik jende asko etortzen zen gaztainak erostera. Gaur egun Galiziatik hona ekartzen dituzten bezala, orduan hemendik eramaten zituzten kanpora", dio Joxek. Gaitzak jota, inguruko gaztaina gehienak ihartu egin ziren.

Bilketa: morkotxa eta guzti

Artoa edo babarrunak biltzeko eguraldi onik ez zenean, gaztainak biltzera joaten ziren basora. Hagarekin, egur luze batekin, zuhaitzera igo eta morkotxak lurrera botatzen zituzten. Joxe bera baino abilagoa omen zen aita horretan. "Arbolatik arbolarra ere hagaren gainean pasatzen zen. Hildakoak ere badira lan horretan". Mor-

kotxekin biltzen zituzten gaztainak eta ganbaran lehertzen eduki. "Morkotxaren barruan ondo kontserbatzen ziren gaztainak, baina askotan hezetasunekin zorua ondartzan zen".

Danbolinean erreta edo egosita

Negu partean ia egunerorako adina gaztaina izaten zuten etxean. Erreta edo egosita jaten zituzten. Beheko suan erretzen zituzten, elatzen danbolina jarrita.

Udazkenean, artoa bildu eta zuritzen aritzen zirenean, gaztaina erreak jaten zituzten. Batzuk bertsoak kantatuz, besteak txisteak kontatuz... gustora aritzen ziren arto zuriketari, giro atseginean.

Gaur egun ere, urtean behin, danbolinaren inguruan biltzen da Joxe Mujikaren familia. Danbolinean erretako gaztaina du gogoko en Joxek, "gozoagoa da".

Garbitasunak

OXEPI

943 88 96 67 ZALDIBIA

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24

943 88 95 83

LAZKAO



Zegamarrak, 1969an

Sinforo Alzolak utzitako argazkia da. Zegamarrak dira argazkikoak eta 1969an aterakoa da.

1.go ilaran, zutik, Ezkerretik eskubira: Felix Larrea, Imanol Artola, Jose Luis Acosta, Don Juan Carnicer, Jesus Ugartemendia eta Jose Mari Ormazabal.

2. ilaran: Jesus Mari Larrea, Jose Antonio Idigoras, Juan Ignacio Alzola, Josetxo Jauregi eta Jose Martin Ibarburu

Olagi
Sagardotegia



Orain eguerdietan ere zabalik
Urte guztian sagardotegiko menua eta karta
© 943 88 77 26 **ALTZAGA**



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:
Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osiña.
Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan
Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.
Segurako Erosle, Idiazabalgo Ahizpak eta **Ormaiztegi**ko Iñaki Erosle.

**ZEGAMAKO KONTSUMO
KOOPERATIBA-k**

egun ona pasa
dezazuela opa dizue?




S. Martin, z/g ☎ 943 80 11 37 ZEGAMA

INJUSTI
KARROZERIA



N-1 errepidea, lurre auzoa
☎ 943 88 43 01 **OLABERRIA**

Argitarapen honen edizioiko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

gizarte-ekintza
obra social

Harlandu S. Coop batez ere profesionalen osatutako giza taldean oinarritzen den enpresa da. Bere azken urteetako esperientzia handia azken teknikekin lotu du diseinuan eta marmol, granito eta harrien akaberetan.

Horrela jaio da Harlandu, bere abangoardiako teknologiari inizatiba eta bere profesionalen taxua batu dizkion kooperatiba.



Zubierreka industrialdea, 52 • LAZKAO

Tel.: 943 882 465 • Tel. eta faxa: 943 887 249

MARMOL, GRANITO ETA HARRI LANAK • SUKALDE ETA BAINUKO GAINAK • FATXADA ETA ZORRIEN ESTALIAK • LAPIDAK



ZEGAMAKO SAN MARTIN FERIA 1999

URBIA ETA AIZKORRIKO
ARTZAINEN ARTEKO

I. GAZTA TXAPELKETA

HERRI MAILAKO

**ABERE ETA GANADUEN
LEHIAKETA**

**AZAROAK 13
LARUNBATA**

Antolatzailea:



ZEGAMAKO
UDALA

Laguntzaileak:

KUTXA

DIPUTAZIOKO
NEKAZARITZA ETA
INGURUGIRO SAILA



Ah diseño

diseinu grafikoak

**Publizitatea
Errotulogintza
Diseinua
Katalogoak
Komunikazio integrala**

Ah diseinu grafikoak zure enpresaren begi-komunikazio beharrak betetzeko zerbitzu oso bat eskeintzen datorriz.

Gure zerbitzuak, zure irajaina egin edo eguneratzen, berez aplikatu, bai paper edota katalogoetan, inprimaketan, banatzen, fotomekanika eta abar barne, baita erakuntzen barne eta kanpo seinalizazioa, ibilgailuen errotulogintza, publizitatea, zoro eta hontzien diseinua, erakustazoketarako kartelak eta standen diseinua etab... Lehenengo probatik, kan bukatua zure esku utzterako prozesu osoa gure gain hartzen dugularik, komunikabideetara eza-gutazirarte, enpresen gaur egungo beharrak ongi ezagutzen ditugulako.

Ah diseinu grafikoak, diseinu eta publizitateko zerbitzuak gain, honakoak eskeintzen datorriz:


- Argazki kalitatezko plotter zerbitzua, kartelgintza eta panelgintza, transparentziak eta abar. (914mm.ko zabaleradun HP DesignJet 2500 cp plotterarekin).
- Eraikuntza edo instalazioen kanpo eta barne seinalaketa.
- Irudiaren tratamendu digitala.
- Binilo ebaketa:
 - Errotulogintza (ibilgailuak, kanpo-kartelak, seinalizazioak etb...)
 - Pegatinak
 - Margotzeko plantillak
- Erakusketa, biltzar, hitzaldi eta abarretarako panel eta kartelen muntaia eta inprimaketa.



ibilgailuen errotulazioa

Kale Nagusia, 5
Tel/Fax: 943882257
c.p. 20200 Beasain
Gipuzkoa

Badakizu lo egiten...



eta amesten?

sekretua hemen daukazu

amets
ATSEDENERAKO SISTEMAK

nagusia, 40
20.200 Beasain
Gipuzkoa
Tel/Fax: 943 88 68 51

50
Urte Matra
SWISSFLEX

Zuretzako prestatu dugun gure 50. urtemugako eskeintza berezia

SF 575



Modu ezin-hobe batean lo egin eta esertzeko. Bi motore ditu bizkar eta hankak erregulatzeko. "Goldlabel" SF 16 LS-1 koltxoia duela.

Orain bakarrik 780.500 Pta
160.000 Pta aurrezten dituzu

SF 535



Atsedenera hartzeko modu eroso bat. Eskuz erregulatu dira bizkar, buru eta hanken kokapena eta altuera. "Goldlabel" SF 16 LF-2 koltxoia duela.

Orain bakarrik 448.900 Pta
100.000 Pta aurrezten dituzu

SF 175



Lo egin eta esertzeko modu atsegin bat. Bi motorek erregulatu dituzte bizkar, eta hankak. Oinaldea berriz SF 14 LF-5 koltxo batak jasoa.

Orain bakarrik 471.800 Pta
90.000 Pta aurrezten dituzu

SF 115



Oinarritzko modelo bat. Oheburua erregulatu daiteke, eta erdialdea SF 14 LF-5 koltxo batak sendotzen du.

Orain bakarrik 238.600 Pta
45.000 Pta aurrezten dituzu

